


Eloibar - 1292. zenb.
XXX. urtea - 2023-06-30

TOKIKOM



BARREN



Gaur, Nahaste Borraste

EXPRESS ESKAINTZAK!

65NAN0826QB LG 4K TELEBISTA



- Kolore puruen zehaztasun handiagoa edozein angelutatik.
- HDR 10, HLG, HGiG formatuekin bateragarria.
- Filmamakerra eta Dolby Digital soinua.
- Potentzia handiko prozesatzailea 4K a5 Gen 5 IArekin: tonuen eta koloreen goi-mailako zehaztapena fotograma bakoitzeko 576 eremutan
- Smart TV - webOS22



599 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Badatoz **Santa Ana** eta **San Bartolome** jaiak!

ZURE ENPRESA, NEGOZIO EDO DENDAREN IZENEAN
JAIETAN BEZEROAK ZORIONDU NAHI BADITUZU, JARRI GUREKIN HARREMANETAN

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



☎ 943 743 704

☎ 688 769 657

**Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.**

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Edurne Izagirre

Psikologoa

Ondoezak badakar ikasketa



"Beldurrak pentsatzea galarazten du eta gure burua arriskuan ikustean oinarrizko instintuak pizten dira"

A sko hitz egiten da buru osasunaz garai hauetan eta berehala sailkatu nahi izaten ditugu ondoezak izen tekniko hutsetan; sindrome bat dugula jakiteak lasaitzen gaitu, zerbait ezaguna dugula pentsatzean ez zaigula ezer arrarorik gertatzen ari pentsatzen dugulako. Baina "gaixotasun" modura pentsatzean badirudi kanpo faktore batek eragin digula eta sendagaia bilatuz konponduko dugula, gure emozioekiko ardura hartzeko aukera galduz.

Kontestuala den gatazka bat gure kabuz barne baliabideekin konpondu nahi izaten dugunean gure psikea gailentzen da. Pandemia garaian asko gertatu zen hori; gaixotasunaren zabalkundea eta horrek eragindako kalte eta hildakoek sorturiko beldurraren zirrarrari aurre egiteko askok bilatu zuten modua mugimenduen murrizketa eta garbiketa etengabea izan ziren. Beldurrak pentsamendua galarazten du, gure burua arriskuan ikustean oinarrizko instintuak pizten dira, eta gure gorputza ihes egiteko edo borrokarako prestatzen da.

Antsietateak ere modu berean blokeatzen gaitu, sarritan larritasun horren arrazoirik identifikatu ezinak sentipena areagotzen duelarik.

Istripu baten ondoren babes neurriak areagotzeak badu bere zentzua, gure bizitzarekiko eta gerta litekeenarekiko kontrol sentipena berreskuratzen laguntzen digu; eta bizitzarekiko eta geure buruarekiko konfidantza handitzen doan heinean, ahalko ditugu neurri horiek malgutu. Hemen dago gakoa, ikasketa hori gauzatzeko aukera ematean geure buruari.

Ondoeza agertzean, norbaitek hau sailkatzea eta konponbide edo sendabide bat ematea bilatzen badugu, ezin izango ditugu estrategia berriak garatu eta geure buruarekiko konfidantza handitu, bizitzako oztopoei lasaitasunez aurre egin ahal izateko.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Haizea Emakume Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Pitxintxuko Izas eta Marijori, gure elkartearantzat urteetan egindako lan boluntarioagatik. (Kuotak, informazioa, karteladak, inplikazioa...). Bulego bat izan dugu zabalik eguneko zortzi orduetan. Eta, gainera, jakinarazi nahi dizuegu Pitxintxu hartzen duena ere bide beretik joateko prest dagoela.

Eskerrik asko, Sara Arriola, elkarteari emango diozun laguntzagatik. Asko pozten gaitu zure lankidetzak, oso garrantzitsua baita taldearentzat.

Haizea Emakume Taldea

Eskerrik asko

Berezia izan da aurten San Joan bezpera gaua Mendaron. 2019az geroztik egin ez den Akelarrea antolatu genuen San Joan suaren bueltan, eta benetan ederra izan zen. Gaur, eta lerro hauen bidez, In Leike osatzen dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu akelarrea janzten lagundu zeniguten guztioi: Mendaroko Gazteak euskal dantza taldeko dantzari, Nahia Fernandez eta Ibane Gisasola dantza modernoko irakasleei eta haien ikasleei, txistulariei, erraldoiak dantzan jarri zituzten Aitzol Urain, Andoni Riaño eta Alain Zulaikari, Amagoia Basurtori, Josu Iriondori, brigadako langileei eta Mendaroko Udalarari. Mila esker, era berean, San Joan bezpera ospatzera plazara batu zineten herritar guztioi ere. Zuekin eta

zuentzat antolatu dugu aurten Akelarrea eta datorren urtean ere hala izatea nahiko genuke.

Mendaroko In Leike taldea

Eskerrik asko Elgoibarko Udaltzaingori

Gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiot Elgoibarko Udaltzaingori, jasan nuen egoera bat zuzentzeko izan duten adeitasun, errespetu, interes eta eraginkortasunagatik. Ez dut udaltzainen izenik idatziko, ez baitut baimenik eskatu horretarako. Gainera, Ertzaintzaren bi agentek eskainitako laguntza ere nabarmendu nahi dut. Mila esker.

A.E.A.



Ana Maria Burgaña Txurruka

2023ko ekainaren 24an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Etxekoak





Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Erretako bi ibilgailu daude aspaldian Lerungo industrialdean eta oso itxura txarra ematen dute: "Hilabeteetan daude erretako bi ibilgailu Lerungo industrialdean, eta iruditzen zaigu badela ibilgailu horiek hortik erretiratzeko ordua. Zikin itxura ematen diote inguruari, eta eskertuko genuke lehenbailehen kentzea".



N-634 errepidean zuloak daude oraindik: "N-634 errepidea asfaltatzen jardun ziren, Guass ingurutik gasolindegia alderaino gutxi gorabehera, baina hala ere, oraindik zuloak laga dituzte tarte batean. Behin lanak egiten hasita, ondo errematatzea falta izan zaie".



Parrokiako kanpaiak isildu egin beharko lirateke gauz: "Uda iritsi da, eta tenperaturak gora egin duen honetan, leihoak zabalik egiten dugu lo. Kalegoen plaza inguruan bizi gara, eta parrokiako kanpaiak tortura bat dira. Loa galarazten digute, etengabe esnatuz. Herritarren atsedenaren mesederako, gauz kanpaiak isiltzea eskatzen dugu. Legez debekatuta dago gauz zarata egitea. Taberna eta gazte lokalak ere intsonorizatu egin behar izaten dira bizilagunei trabarik ez egiteko. Zergatik mantendu behar dira parrokiako kanpaiak? Gaur egun denok ditugu iratzargailu eta ordulariak etxean".



Eskerrik asko ballet irakasle Rosa Marini: "Ballet eskolako ikasle gazteek ikasturte amaierako erakustaldia eman zuten joan zen egunean Azpilgoetako Kultur Etxean eta izugarri gozatu genuen hara bildu ginenok. Eta ondoren mokadua egin zuten Aitz Beltz tabernan. Gurasook eskerrak eman nahi dizkiogu Rosa Marini, ikasturte guztian zehar oso gustura aritu direlako gure haurrak. Nahi duenak aukera dauka datorren ikasturterako izena emateko: 667 519 153".



HASI DIRA UDALEKUAK

✍ Ainhoa Andonegi 📍 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Koloretan eta Baaagatooz lemapean hasi dituzte Udalekuak Elgoibarren. Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak eta Udal Ludotekak antolatu dute udaldia elkarlanean, eta HH2tik LH6ra arteko 356 umek eman dute izena. Adin-tarte bakoitzerako egokitutako programak diseinatu dituzte. Txikienen kasuan, herriko hainbat lekutan ibiliko dira, auzoak ezagutuz eta herriko hainbat baliabide erabiliz: merkatu plaza eta liburutegia, adibidez. LH1-3koek astean egunpasa bat egingo dute eta LH6koek iluntzepasak eta arratsaldepasak izango dituzte,

eta horrez gain, GaraiOn sorgingunean 5 eguneko egonaldia egingo dute. Uztailaren 21era bitartean kolorez jantziko dituzte, beraz, herriko kale eta txokoak.

Mendaron ere astelehenean hasi zuten udaldia, eta lau astez iraungo du. 74 umek eman dute izena, eta bi txanda izango dira. Adin-tarteka antolatu dituzte ekintzak, eta adin bakoitzera egokitutako jolas eta ekimenak prestatu dituzte hezitzaileek. Era berean, herriko kondaira eta kantuak ere landuko dituzte.





Trafikoak noranzko bakarria izango du Urazandi auzoan

J oan zen astean zabaldu zuten Urazandi eta Kalamua kaleak lotzen dituen bide berria, eta horrek eragina izan du trafikoaren noranzkoan. Aurrerantzean, beraz, zirkulazioa norabide bakarrekoa izango da auzoan: Urazandi kalea ibilgailuak igotzeko izango da, eta Kalamua, jaisteko. Seinalizazio berria jarri dute auzoan, eta galtzadako marrak ere margotzen ari dira. Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak azpimarratu du bide berriak aukera gehiago emango dituela auzoko kaleetako trafikoa antolatzeko eta oinezkoentzako mugikortasuna hobetzeko. Obren aurrekontua 213.196,89 euro + BEZa izan da, eta Egurki Eraikuntzak enpresak egin ditu lanak.



Kafe kapsulak biltzeko edukiontziak jarri dituzte



Debabarreneko Mankomunitateak kafe kapsulak batzeko 45 edukiontzi jarri ditu eskualdeko herrietan. Horietako sei Elgoibarren: Bernardo Ezenarron, Toletxegainen, San Roken, Basarten, Urazandin, Eulogio Estartan eta Altzolan, eta bi Mendaron: Kilimon Etorbideko 7. zenbakian eta Azpilgoetan. Mankomunitateak 5.325 kilo kapsula batu zituen iaz, eta hori ikusita, edukiontzi berezituak ipintzea erabaki zuten, bakarrik kafe kapsulak batzeko.

Hemen bertako zuhaitzak landatzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak

20.000 euroko diru partida sortu du Elgoibarko Udalak hemen bertako zuhaitz-espezieak landatu nahi dituztenei dirulaguntzak emateko. Laguntza jaso ahal izateko, zenbait baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek:

1. Gutxieneko lur-azalera hektarea erdikoa izatea (5.000 m²).
2. Landatutako espezieek autoktonoak izan behar dute.
3. Hektarea bakoitzeko gutxienez 500 ale behar dira. Justifikatutako kasuetan, laguntzak eman ahal izango dira ale gutxiago landatzeko.
4. Nahitaezkoa da landatutako aleetan babesleak jartzea.
5. Landaketa azaroan, abenduan, urtarrilean, otsailean eta martxoan egin behar da.

Informazio gehiagorako edo oinarriak eta deialdia bere osotasunean ikusteko, Udalaren webgunea bisitatu edo udal bulegoetara jo behar da (Santa Ana, 2. 943 741 050). Eskerak elektronikoki aurkeztu beharko dira herritarren atarian, Udalaren webgunean: www.elgoibar.eus.

Larrialdi plana prestatuko du Elgoibarko Udalak, herriko eragileekin batera

Ekainaren 18ko eta 20ko euri jasek eragindako kalteak ikusita, Elgoibarko Udalak neurri "sendoak" hartzea erabaki du, bertako biztanleen segurtasuna bermatzeko. Dagoeneko aztertu eta garbitu dute estolderia, eta lurrak mugitu dituzte IMHtik beherako bidetik datozen urak San Lorentzo ibaira bideratzeko. Estolderiako estalki batzuk ere egokitu dituzte Ermuaranbide kalean ur gehiago biltzeko, eta, horrez gain, uholde-kasuetan jarraitu beharreko protokoloa ere zehaztu dute. Horrekin batera, Udalak Larrialdi Plan bat garatzeko izapideak hasi ditu, herritarrekin eta tokiko eragileekin lankidetzan. Modu horretan protokolo eta neurri berriak ezarri nahi dituzte, muturreko fenomeno klimatikoek eragindako larrialdi-egoeretan azkar eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko. Larrialdi Plan honen helburua elgoibartarrak eta haien etxebizitza, lokal eta espazio publikoak



babestea dela zehaztu dute Udaletik, eta horregatik, eragileekin, larrialdi-zerbitzuekin, segurtasunekoekin, boluntarioekin eta auzo-elkarteekin osatuko du Larrialdi Plan integrala.

Hiru langile kontratazeko deialdia argitaratu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak hiru langile kontratazeko deialdia argitaratu du, Lanbiderekin lankidetzan. Lanpostuen dedikazioa lanaldi osokoa izango da, 4 hilabeterako. Askotariko lanak egiteko lanpostuak dira, eta honako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek:

- Igeltseritza, elektrizitate, pintura edo iturgintza-lanetan lanbideko ziurtagiriaren bidez egiaztatutako esperientzia izatea.
- Langabezian eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba edo Mutrikun erroldatuta egotea.

Izena eman nahi dutenek Lanbideren Elgoibarko egoitzan edo www.lanbide.eus webgunean egin dezakete.

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2023ko dirulaguntzen barruan Elgoibarko Udalak 82.056 euroko dirulaguntza jaso du, eta laguntza hori baliatuko du lanpostu horien deialdia martxan jartzeko.

Establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak establezimenduaren errotulu nagusia euskaraz edo irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak emango ditu. Errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzen duenari, kostearen %50eko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Udalak, gauza bakoitzerako gehieneko kopurua 300 eurokoa izanik. Gauza bietarako, gehienez 500 euro. Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa da euskaraz ondo idatzita egotea eta hori Euskara Zerbitzuak ziurtatu beharko du. Errotulu nagusiaren kasuan, izena edo izen-abizenak soilik agertzen badira, Udalak ez du dirulaguntzarik emango. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da eta interesdunek dagoeneko eskabideak aurkez ditzakete HAZen (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki www.elgoibar.eus webgunean. Informazio gehiagorako 943 744 366 telefonora deitu edo euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Idotorbeko jaiak ospatuko dituzte asteburuan, eta gaur zortzi hasiko dituzte Urazandikoak



U da hasi dugu, eta udarekin batera, hemen dira auzoetako jaiak ere. Asteburuan ospatuko dituzte jaiak Idotorben, eta datorren astean hasiko dituzte Urazandin. Izango da, beraz, zer ikusi eta zer gozatua Elgoibarren. Bihar, Idotorbera igotzeko autobusa ere egongo da, Maalatik (16:00).

Atzo hasi zituzten jaiak, San Pedro egunez. Gaur, San Pedro Elkartean egingo dute lagun arteko afaria 20:30ean, eta ondorenerako mus txapelketa antolatu dute. Zapatua eta domeka beteago datoz, hala ere. Bihar arratsaldean, umeentzako jolasak, Rusoren animaliak eta Niala magoaren ikuskizuna daude iragarrita, eta iluntzerako, beste afari bat San Pedro jatetxean (943 740 010). Ondoren, 23:30ean, erromeria izango dute Bide Batez taldearekin eta goizalderako irrintzi lehiaketa antolatu dute.

Domekan, Baltzola eta Andonegi soinujoleek girotuko dute goiza eta 13:00etan bolo txapelketa izango dute. Txapelketa ondorenean, aho-sabaiaik gozatzeko, pintxo dastaketa prestatuko du Maite Gourmetek, eta bazkalosterako erromeria lotu dute [Agendan duzue egitarau osoa].

Gaur zortzi hasiko dituzte, bestalde, Urazandiko jaiak eta datorren asteko zenbakian emango dugu hango jaien berri zabalago. Hiru eguneko jaiak izango dira eta bete-betea dator egitaraua. Dantzaldiak, karaokea, kontzertuak -tartean Amildegi herriko taldearena-, auto klasikoaren kontzentrazioa, historiaurreko teknikak ezagutzeko Jose Julian Marquezek emango duen erakustaldia, herri bazkari handia (zapatuan), buruhandiak, familientzako zirku tailerra eta tortilla lehiaketa antolatu dituzte, besteak beste.

Lau eguneko garagardo azoka solidarioa antolatu dute Mendaron uztailaren 13tik 16rako, eta lanerako boluntarioak behar dituzte

Iaz antolatu zuten estreinakoz garagardo azoka solidarioa, Ukrainarekiko elkartasunez. *Zerua eta garia* izena jarri zioten, eta izan zuen harrera ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute. Aurten, baina, biltzen duten diru guztia bularreko minbiziaren ikerketara bideratuko dute.

Uztailaren 13tik 16ra egingo dute garagardo azoka, eta egun horietarako egitarau zabala antolatu dute. Uztailaren 13an, arratsaldez, zabalduko dute, bularreko minbizi dutenei laguntzeko elkartean aurkezpenarekin. Lau egunetan bazkaltzen eta afaltzen ere emango dute frontoian iaz bezala (barikuan, afaltzen



bakarrrik). Eta hori guztia egingarri izateko, boluntarioak ere behar dituzte lanerako. Hala, laguntzeko prest daudenei izena emateko eskatu diete antolatzaileek (Uztargi tabernan).

BADAGO ERRELEBOA

✍️ Aina Argoitia / Ainhoa Andonegi

Jabeen erretiroa eta errelebo falta, erosketa ohiturak aldatu izana, digitalizatzeko zailtasunak, lehengaien zein energiaren garestitzea... ez dituzte garai onenak bizi herriko saltokiek eta familia negozioiek, baina dena ez da beltza. Badira erreleboa eman dutenak ere Elgoibarren, eta horietako bi adibide ekarri ditugu gaur hona: Sara Arriola eta Ane San Martin gazteak.

Pitxintxuk zabalik jarraituko du

Sara Arriolak (Elgoibar, 1997) hartuko du Pitxintxu liburu eta opari denda. Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Saisetik edota C.D. Elgoibartik ezagutuko duzue askok, ibilbide luzea egin duelako bietan eta bere izateko eta egiteko moduagatik pertsona eredugarria izan delako bietan. Orain, baina, erronka berri bati heldu dio: 45 urteren ondoren Elgoibarren eta inguruotan erreferentziazkoa bihurtu den dendari eustea eta bizi berri bat ematea.



Bolo-bolo ibili da zure izena, baina azkenean, egiaztatu da. Sara Arriolak hartuko du Pitxintxu. Nolatan?

Garbi esango dizut: nik ez nekien Izaskun eta Mari Josek erretiroa hartzen zutenik ere. Txino [Imanol Larrañaga, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko dinamizatzailea] etorri zitzaidan esanez Izaskun eta Mari Jose errelebo bila zebiltzala eta denda hartzea aztertzen ari zela Elgoibarko Izarra. Aipatu zidan dendan lan egiteko egokiak izan zitezkeen zenbait lagunen izenak eman zizkietela Izaskunek eta Mari Josek, eta horietako bat ni nintzela. Galdetu zidan Elgoibarko Izarrak hartuko balu ia prest egongo ote nintzatekeen langile gisa hasteko hemen lanean, eta gustatu zitzaidan proposamena. Asteak eman genituen gai honi bueltaka, eta azkenean, lagun batek eta

biok hartuko genuela esan genien. Baina bizitzako gorabeherak eta nik dakit nongo indarrek denda neuk bakarrik hartzera bultzatu naute azkenean. Neuk hartuko dut denda, bai, momentuan beste langilerik gabe.

Eta batzuen poza, besteen kezka izango zen beharbada, Pitxintxu hartzeko futbola laga duzulako, C.D. Elgoibarren eta Elgoibarko emakumezkoen futboleko eredu izan zarela aitortu berri dizutenean.

Lan handia egin dugu C.D. Elgoibarren, baina horixe: egin dugu, ez naizelako bakarrik jardun. Egia esan, sentimendu gazi-goza bizi dut neuk ere, urte asko egin ditudalako C.D. Elgoibarren eta asko sinisten dudalako proiektu horretan. Bai nik eta baita beste neska askok ere oso geure sentitzen



Izaskun Estibaritz, Sara Arriola, Mari Jose Estibaritz eta Rosa Agirre.

dugu C.D. Elgoibarren emakumezkoen futbol taldea eta oso maite ditugu bai taldea eta baita kluba ere, eta jakina, lau urteko lanaren ostean, horri denari agur esatea ez da erraza. Lau urte zoragarri izan dira, baina bizitzan etapa ezberdinak izaten dira eta iritsi da hau itxi eta berria hasteko garaia niretzat. Garbi daukat, hala ere, ahal dudan guztia egingo dudala aurrerantzean ere Elgoibarren emakumezkoen futbola bultzatzeko, harmailatik edo nagoen lekutik. Lagunak ditut taldekideak eta iruditzen zait guk egin dugunak balio izan duela atea zabaltzeko atzetik etorri diren beste neska askori. Hori ezin dugu galtzen laga. Begira Sara Eturari. Realak fitxatu du, eta hori sekulako lorpena da guretzat, estreinako aldia delako Elgoibar kirol elkarteko neska bat fitxatzen duela Realak.

Erronka zalea zara eta Pitxintxu hartzea bera ere bada nahikoa erronka. 45 urte bete dituen denda da, denda erreferentziatzkoa Elgoibarren eta inguruetan. Zer sentitzen duzu?

Bertigo handia sentitzen dut, baina iruditzen zait hori sentitzea ere beharrezkoa dela halako bizi-proiektu bati heltzeko. Ez dakit erronka zalea naizen, baina momentu honetan ausarta sentitu naiz eta ilusio handiarekin. Ez dakit gero zer izango den, baina helduko diot datorrenari. Garbi daukat ez dudala bururik nekatuko sor daitezkeen arazoetan pentsatzen. Badakit, gainera, Mari Jose eta Izaskun gertu izango ditudala gero ere aholkuak emateko, eta horrek sekulako lasaitasuna ematen dit.

Dendaostean harrapatu zaitugu gaur, bulegoko lanetan itxura batean. Izaskun dago mostradorean. Noizko aldaketa? Zer nolako denda izango da Sara Arriolaren Pitxintxu?

Ezin dugu egunik zehaztu momentuan. Ikasten ari naiz orain, eta agiriak eta paper kontuak zuzentzen, Izaskunek erretiroa hartzen duen egunerako dena prest izateko. Garbi daukat orain arte Pitxintxu izan den honi guztiari ezingo diodala neuk bakarrik eutsi. Pitxintxuk jarraituko du liburu eta paper denda izaten eta salduko ditut jolasak, bitxiak eta bestelakoak ere, baina jostintza kontuak laga egingo ditut. Ez dakit josten eta interesik ere ez daukat ikasteko. Alor horri eusteko Mari Jose eta Izaskun ondoan beharko nituzke gero ere, baina hauek nahikoa egin dute dagoeneko eta merezi dute erretiro on bat. Hori denok izan behar dugu argi. Orain, honi guztiari neurria hartzea dagokit niri, eta hasiko naiz gero bestelakoetan pentsatzen. Ideiak badauzkat eta egiteko gogoia ere bai, baina bi hanken gainean zutik jarri behar naiz lehenengo hemen. Lasai hartu nahi dut, epe luzerako proiektutzat daukadalako. Hori bai, garbi daukat nondik natorren eta zer sustatu nahi dudan. Zortzi urtean izan naiz Elgoibarko Izarran hezitzaile, elkartearen balioak neure egiten ditut eta badauzkat buruan han ikasitakoa dendara ekartzeko ideiak. Modua ere bisualizatzen dut.

Denda guztiak behar ditugu zabalik, horrek egiten duelako herria bizia, baina Pitxintxuk badu bereizgarri hori, kulturarekin duen harremana. Horrek eraginik izan du zure erabakian?

Bai. Umetatik izan naiz ni Elgoibarko Izarraren zerbitzuen erabiltzaile eta zortzi urtez hezitzaile lanetan ere ibili naiz han. Gehitu horri etxetik jaso dudana, eta bai, esan dezaket horretxek lotu ninduela bereziki hona. Proposamenarekin etorri zitzaizkidanean Elgoibarko Izarrakoek esan zidaten kultur proiektu bat sortu nahi zutela dendaren bueltan eta zirrara handia sortu zidan horrek; horretxek erakarri ninduen gehien, egia esan. Uste dut Elgoibarren badagoela horren premia eta badagoela nondik heldu ere. Jende on asko daukagu herrian kultur mugimendu hori sortzeko eta elikatzeko, eta iruditzen zait, gainera, egingarria dela halako zerbait.

"Argi laga nahiko nuke kontu bat, inork ez dezan ezustekorik hartu gero. Ni ez naiz Izaskun, ezta Mari Jose ere. Ni Sara naiz, eta gauza asko ezberdin egingo ditut, azken batean ezberdinak garelako"

Arrasto bat zabaldua zuten Pitxintxun norabide horretan. Liburu aurkezpenak, poesia emanaldiak... Aurreikusten dituzu halakoak gero ere orduan?

Bai, nahi nuke. Badakit Elgoibarko Izarra ere hor gertu izango dudala gainera, eta neurria hartutakoan honi guztiari, jarriko gara horretara.

26 urte dituzu. Gazte ekintzailerik ez dela esan ohi da. Zer duzu esateko? Ba al dago erraztasunik?

Dirulaguntza batzuk egon badaude, bai. Elgoibarko Udalak, adibidez, 3.500 euroko laguntza dauka orain gazte ekintzaileentzat, eta nire kasuan, Lanbideko beste bi dirulaguntza jasotzeko aukera ere badaukat. Zerbait badago beraz, baina horrekin ez da nahikoa. 26 urte dauzkat eta nire adinekoei gertatzen zaiguna da etxekoen edo inguruko laguntza ekonomikorik gabe zaila daukagula oso proiektu bati ekitea, hasteko dirua behar delako. Dirulaguntzak oso ondo daude, baina puntualak dira eta motz gelditzen dira. Ezinbestekoa da baita inguruan babestuko zaituen jendea eta lagunduko dizun sare bat izatea, eta nik hori badaukat, inguruko jende guztia ari zaidalako animatzen. Inguruko denak oso pozik ditut eta herrian ere sumatu dut halako poz bat. Hori bai, bada argi laga nahiko nukeen mezu bat inork ez dezan gero ezustekorik hartu: Ni ez naiz ez Izaskun, ezta Mari Jose ere; ni Sara naiz eta gauza asko ezberdin egingo ditut, azken batean ezberdinak garelako eta nork bere pentsatzeko eta egiteko modua dituelako.

Eta nola uste duzu hartu dutela Izaskunek eta Mari Josek erreleboa?

Oso pozik ikusten ditut. 45 urte eman dituzunean gorputz-arima dendan lanean,

gogorra izan behar da pentsatzea dena saldu eta betirako itxi beharko duzula atea. Dendara sartzen diren guztiak pozten dira Pitxintxu ez dela itxiko esaten diegunean.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Espero dudala gero ere jendea etortzea erostera, herriak bizirik nahi baditugu ezinbestekoa delako jendeak herrian erostea. Denda asko itxi dira, eta herritar askok badute dena ixten ari den uste hori, baina nik esan nahi nieke bagaudela honi eutsi

nahi diogun gazteak ere eta euren laguntza beharko dugula. Hor daude esaterako, Ainhoa Uriguen Karkizanokoa, Gemma Monrealen estudioa hartuko duen Ane San Martin, eta Angel Rey, King Kong tabernakoen semea, pizzeria zabaldu asmo duena. Herri hau ez dago hilda, baina bizirik mantendu nahi badugu, denok hartu behar dugu kontuan oso garrantzitsua dela herrian erostea. Aldi berean, baina, onartu behar dugu erosteko ohiturak ere aldatu direla eta asmatu behar dugu aldaketara egokitzen.

"Bezero maitagarriak izan ditugu, eta eskatu nahi diet elgoibartarrei aurrerantzean ere etortzeko Pitxintxura eta erosteko herriko dendetan"

Agerikoa dute poza Izaskun eta Mari Jose Estibaritzek, Pitxintxu hartuko duen pertsona topatu dutelako, eta "oso ona" gainera, Izaskunen hitzetan. Bazuten ardura, eta egunero sentitzen zuten kezka bezeroen galdera eta esanetan ere. Beharbada, dena saldu eta atea betiko ixtea errazagoa zuten, baina Elgoibar liburu-dendarik gabe uzteak eta salmenta onak zituen denda betiko ixteak ematen zien mina. Eta horregatik jo zuten Elgoibarko Izarrara ere, liburu-dendari eusteko norbait nahi zutelako eta ziurtatu nahi zutelako norbait horrek euskara eta euskal kulturarekiko ardura izatea. Eta ez alferrik, Pitxintxun beste leku askotan baino hobeto saldu izan direlako beti euskarazko liburuak.

Aitortu dute urduritasun handiz bizi izan dutela azkeneko urtebetea, duela urtebete hasi baitziren gutxi gorabehera erreleboan pentsatzen eta ekaineko lehenengo astera arte ez dutelako ziurtatuta izan. "Bagenekien betiko ez ginela, baina eguneko bizi genuen, harik eta lagatzeko eguna gerturatzen hasi zen arte. Errentan hartuta daukagu guk lokala eta batetik geneukan hori, eta bestetik, gure hornitzaile nagusia den Elkarren ohartarazpena, esaten zigulako jabez aldatzekotan aldaketa martxo-apirila aldera egitea komeni zitzaigula, orain hasten garelako irailerako eskolako materiala

eskatzen eta hilabete gogorra izaten delako hemen, baina lotu gabe geneukan dena eta urduritasun handiz bizi izan dugu urtariletik ekainera artekoa", esan du Mari Josek. "Azkeneko lau hilabeteetan material berriak ere ez dugu eskatu, ez bada bezeroak propio eskatutako zerbait, eta hori bera ere gogorra egin zait niri, saltzeko orduan lehen beste aukerarik ez izatea, baina zer izango zen jakin gabe ezin genuen dendaostea betetzen jarraitu", gehitu du Izaskunek.

45 urtean bezeroek zer nahi duten irakurtzeko gaitasuna garatu dute, eta bezeroek nahi duten hori ahal den azkarren dendara inguratzeko modua ere egin dute. Komertzio txiki askoren bereizgarri den hori izan dute Pitxintxun ere. "Saltzaileak gara, gustatzen zaigu gure lana, eta ahalegindu gara gertuko arreta ematen bezeroei; aholkatzen eta behar duen hori eskuratzen", zehaztu du Mari Josek. Eta aurrerantzean ere hori ziurtatuta ikusten dute. Bezeroei eskerrak eman dizkiete urte guzti hauetan emandako babesagatik: "Gabonetan familia osoarentzako opariak dendan erosten dituzten bezeroak ere izan ditugu. Bezero maitagarriak izan ditugu, eta eskatu nahi diet elgoibartarrei aurrerantzean ere etortzeko Pitxintxura eta erosteko herriko dendetan, herriak bizirik nahi baditugu ezinbestekoa delako hori".



Ane San Martin eta Gemma Monreal.

Ikaslea orain irakasle

Orain dela 24 urte zabaldu zuen Gemma Monreal margolariak estudioa, eta azken 11 urteotan margo-eskolak ematen jardun du. 62 urte ditu, eta margotzen jarraituko duen arren, eskolak emateari lagako dio. Monrealen ikasle izandako Ane San Martin gazteak hartuko du lekukoa, eta Ane Arte Tailerra zabalduko du irailan. Ikasle izan zena hasiko da, beraz, irakasle lanetan.

Luziano margolariarekin hasi zen margotzen Gemma Monreal, eta hunkituta azaldu du 18 urte bete zituenean Luzianok esan ziona: "Bukatu da gure arteko irakasle-ikasle harremana. Orain, pareko gara". Gauza bera sentitzen du orain berak. 11 urtez neska-mutilei

margo eskolak ematen aritu ostean, erreleboa emateko ordua iritsi dela erabaki du, baina aspalditik zeukan buruan nori eman ardura hori: Ane San Martin gazte elgoibartarrak jarraituko du Gemma Monrealek hasitako bidea, eta Monreal Estudioa Ane Arte Tailerra izango da irailetik aurrera.

11 urte zituela hasi zen Ane San Martin Gemma Monrealen margo-eskolak jasotzen, eta 7-8 bat urte egin zituen berarekin. Betidanik gustatu izan zaio artearekin zerikusia duen guztia, goi mailako ikasketak ere bide horretatik egin ditu. 22 urte ditu, eta Arte Ederrak unibertsitate ikasketak amaitzear dagoen puntuan, bere ametsa beteko du: "Gemmoren proposamena entzun nuenean, pentsatu egin behar nuela esan nion, baina oso argi neukan baietz erantzungo niola. Ezin nion eskaintza honi ezetzik esan, hau delako beti nahi izan dudana. Orain dela urte batzuk, galdetzen zidatenean nagusitan zer izan nahi nuen, Gemma Monreal bezala margo

irakaslea izatea nahi nuela erantzuten nuen". Ilusioz beterik dago, baina aitortu du era berean kezka puntu bat ere sentitzen duela. Hala ere, etxekoan, lagunak eta Gemma beraren babes guztia dauka, eta horrek lasaitasuna ematen dio: "Hau da nik beti nahi izan dudana; honekin egin izan dut amets, eta bertigo pixkat ematen dit. Baina nire bueltako guztien babesak daukat, eta horrek ematen dit aurrera jarraitzeko behar dudana indarra". Aneren lagunak eta amama ere gerturatu dira estudioa ezagutzera: "Hemen nabilen estudioa txukuntzen eta bi neska gazte etorri zitzaizkidan, Aneren lagunak zirela eta estudioa ikusi nahi zutela! Beste egun batean, Aneren amama ikusi nuen estudioaren atarian begira, eta barrura sartzeko esan nion, bere bilobaren lantoki berria ezagutzera. Ilusioa nabari zitzaion", azaldu du Monrealek.

ESTUDIOA ESKURIK ONENETAN

Orain dela pare bat urte hasi zen Gemma Monreal bere erreleboan pentsatzen, eta argi zeukan Ane San Martin izan behar zela bere ordezkia. Bere ustez, "hamarreko emakumea" da Ane: "Beharrezkoa den guztia dauka Anek. Errespetua, maitasuna, pazientzia, enpatia... Azalpenak emateko gaitasuna dauka, Atxutxiamaikan ere badabil eta umeak maitasunez hartzen ditu. Inoiz ez dut zalantzarik izan. Hasieratik konturatu nintzen mundu hau maite zuela, sekulako interesa zeukan ikasteko, eta erdi txantxetan nire oinordekoa izango zela esaten nion hasieratik". Eta halaxe izan da. Arte Ederretan Lizentziatua, umeekin lan egindakoa aisialdian, Gemmaren ikasle ohia eta Egur arte eskolan irakasle izandakoa da Ane. "Hori guztia batuta sortu dut Ane Arte Tailerra".

Estudioan obra batzuk egingo dituzte irailera bitartean, eta eskolak emateko gunea handituko dute. Hamar ikasleko taldeak osatuko dituzte, eta adin tarteari dagokionez, HH5etik aurrerako ikasleentzako eskaintza egongo da. Helduentzako eskolak emateko asmoa ere badauka goizetan, eta interesa egongo balitz, arratsalderen baten ere izango luke helduei tarte bat egiteko aukera. Adin tarte bakoitzera egokitutako eskolak emango ditu. Umeekin, esaterako, margoak, akuarelak, errotulagailuak,


**HH5etik aurrerako
umeentzako eskolak emango ditu,
eta helduentzako klaseak ere
eskainiko ditu, goizez.**

arkatzak edo toxikoak ez diren materialak erabiliko ditu, eta helduei oleoak ere eskainiko dizkie. Horrez gain, eskultura eta eskulanak lantzea ere gustatuko litzaioke, eta horretarako materialak eskuratu ditu dagoeneko. Bereziki buztina lantzeko asmoa dauka, baina material desberdinak birziklatuta beste erabilera bat emateko eskulanak egiteko aukera ere egongo da: "Adibidez, norbaitek etxean botila polit bat baldin badauka eta lanpara bat egin nahi badu, egingo dugu". Pintura eta margoa izango dira Ane Arte Tailerraren oinarriak, baina ideia berri asko ditu Anek, eta esperimentatzeko gogoia ere bai. Aukera berriekin hasiko du ikasturtea.

Iraila iristeko eta lanean hasteko irrikaz daude Gemma eta Ane. Bizitzako etapa berri batean murgilduko dira: ikasle izan zena izango da orain irakasle, eta irakaslea zenak pauso bat atzera emango badu ere, ez du erabateko erretiroa hartuko. Gemma bera izango du bidelagun Anek hasierako etapa honetan. Trantsizio etapa batekin hasiko dira, ikasleak irakasle berrira ohitu daitezten, eta familiak ere lasai egon daitezten. "Badakit ez dela arazorik egongo eta denak pozik egongo direla Anerekin. Konfiantza osoa daukat berarengan, baina behar duen guztian laguntzeko prest nago". Monrealek ez dauka, baina, margotzeari lagatzeko asmorik: "Hil artean margotzen jarraitzeko asmoa daukat. Nire pasioa eta nire bizia da hau, ezin diot margotzeari laga".

Izena emateko:

 688 632 478

 @aneartetailerra

 aneartetailerra@gmail.com

Prezioa: 5,65 euro orduko + materiala

**Barruratu zaituz
Debabarrean**

Pilotarien eskutik

ERMUKO FRONTOIEN ETA PILOTARIEN JAIOTETXEEN IBILBIDEA

Ermua tradizio pilotazale handikoa da eta kirol honetako modalitate guztietan jokatu duten ehundik gora profesional eman ditu herriak, batzuen lorratza kale-izendegian bertan ere jasotzen delarik. Herrian zeharreko ibilbide xumea proposatzen dugu eskuz, palaz, zestaz eta erraketaz, “Ermua” izena munduko txoko askotara zabaldu duten gizon-emakume haiek pilotan trebatu ziren frontoiak ezagutuz eta batzuen jaiotetxea kokatuz.

Sallabenteko frontoia

Herrian sakabanatuta dauden zortzi frontoiei, Sallabentekoan emango diogu hasiera. Zaldibarko lurretan kokatua, auzo horretako umeteriaren bilgune eta jolas-leku izan da beti. Ermitaren hegala ezkerpareta egiteko aprobetxatu zen, jatorrizko leiho ojibalak mantenduz, eta 1955eko San Lorentzo egunean inauguratu zen. Hantxe ekin zion eskuz Santi Agirrek eta eskolatik bueltan sarritan aurkari izaten zuen Charo de Cruz, gerora erraketista izango zena. Bertan zaletu zen ere Ernesto Vieira palista, profesional mailan debutatu duen azken ermuarra.

Frontoi Barrixa

Herrigunerantz abiatuko gara, Batzokiraino. Ostean frontoia du: 1935an eraikia, Frontoi Barrixa bezala ezagutzen zuten. Astero batzen dira bertan gaur egun ere pala edo esku-pilotan jarduteko, eta bilgune bihurtu da pilota eta hark dakarren lagunartea maite dutenentzat.



Plazako frontoi nagusiaren ondoan, hainbat pilotariren jaiotetxeak. E. GONZÁLEZ

Elizpeko arkupeak

Izelaietatik behera elizpeko arkupeetara ailegatuko gara: frontoia izan zen hori ere eta plazakoan lekurik ez zegoenean haraxe joaten ziren herriko umeak eta gazteak. Eskuz, barrusetara jokatzeko zuen estimazio handiena. Meza orduetan ez, jakina, ze klas! eta klas!, pilotaren horma-hotsak barruko guztiak aztoratzen zituen.

Areitotarrak

Gertu, Santiago plazako arkupeen gaineko etxeari pilota usaina da-

**Erdikokalen etxe
gehienek dute
pilotarien lorratza:
puntistak, palistak,
erraketistak...**

rio: hortxe jaio ziren Angel eta Felix Areitio zesta-puntista entzutetsuak eta Solozabal anaia guztiak: Dani palista eta Miguel, Ignacio eta Alex puntistak. Victor Yarla euron lehengusu pilotari puntista ere, etxe berean biziko zen gerora.

Erdikokaleko pilotariak

Erdikokalera eramaten gaituzte gure pausuek eta etxe gehienek pilotarien lorratza dute, bertan jaio edo bizi zirelako: 5. peoran Rosendo Garate puntista eta Felix eta Jose Andres Izagirre palistak, 6an Juan Jose Ibarrola, 7an Nikolas Lizundia, 8an Juan Jose Solozabal eta Jose Luis Izagirre eta 10ean Eduardo Unamuno, bostak zesta-puntan aritutakoak. Azkenik 11n Zubizarreta anai-arrebak: Rosario eta Eladia erraketan, Ignazio eta Fernando zestan.



Sallabenteko frontoia. ESTIBALITZ GONZÁLEZ.



Santiago plaza eta Erdikokale. E. G.

Felix Izagirre "Txekorra"

Erdikokaletik plazara, nahi eta nahi ez Felix Izagirre Zeharbidetik igaro beharra dago, jaio eta bizi izan zen etxe bien artean. Frontisaren ondoan, plaka-eskultoriko batek gogora ekartzen digu "Txekorra", bere sasoiko palistarik distiratsuenetakoa, hantxe hasi zela pilotari hautsak ateratzen. Herriko frontoi nagusiak plazaren zatirik handiena hartzen du eta desafio, partida eta une gogoragarrien testigu izandakoa da, profesional zein afizionatu mailetan.

Cantabria Zeharbidea

Gertu dago ere Cantabria Zeharbidea, esku-huskan eta palan nabarmendutako Bernardo eta Toribio Garate anaien omenezkoa. Erdigune aldean erraz egin daiteke topo Juan Luis Arrarte, Miguel

Altuna, Eusebio Yarza, Nikolas Mugerza, Miguel Okariz edo Dani Solozabal pilotari puntista ohiekin. Zubiaurre kalean aurrera jarraituz, arbola artean Igartuaneko etxea dugu: Irene Ibaibarriaga erraketistaren bizileku, Rosario, Poli eta Bitxori erraketisten ahizpa eta Bizente puntistaren arreba izandakoa.

Lau frontoi gehiago

Pasealeku atsegina da Pagorbe ingurutik Ongarai auzora eramaten gaituena, eskola gunera. Ber-

tan hiru frontoi topatuko ditugu: Anaitasuna Ikastolan, Ongarai Eskolan eta Ermua BHI Institutuan. Herrira jaitsiz berriro, Arizmendi pilotalekua dugu San Pelaion. 1984an inauguratu zenetik, esku-pilota eta pala dira bertan jokatu diren modalitateak, eta bere instalakuntzak beste kirol batzuetarako ere erabiltzen dira, euriarekin herriko ospakizun ugariaren ategune izateaz gain.

"Bertako Bilduma"

Ibilbideari amaiera emateko Udal Liburutegira gerturatuko gara: "Bertako Bilduma" dugu bertan, pilotarien gaineko hainbat argazki eta prentsa-artikulu gordetzen dituen. Etxeratu osteko atsedenean on-line ere kontsultatu daiteke Udaleko webgunean, "Ezagutu Ermua" atala klikatuz eta "Tokiko Bilduman" arakatzuz.

Liburutegiko "Bertako Bilduma" k pilotarien gaineko argazkiak eta prentsa-artikuluak gordetzen ditu.



12 millas
nautika eskola

Bidaiak, esperientzi ahaztezinak eta titulazioak lortzeko aukerak!!



Nabegaziko lizentzia



Oinarrizko Nabigazio patroli titulazioa



Jolas onteko patroli titulazioa



Yateko patroli titulazioa



Yateko kapitain titulazioa

www.12millas.es / 609 245 190 / Toletxe kaka, 13 - ELGOIBAR




"2024rako Oizeko Ibilbide Megalitikoa martxan jartzea aurreikusten dugu"

JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA ARKEOLOGOA

2021ean ekin zioten Agiri Geoarkeologia Elkartek eta Mallabiko eta Berrizko Udalek Oiz mendiko proiektuari, Juan Carlos López arkeologoa buru, eta urteotan hainbat aurkikuntza egin dituzte.

Zenbat monumentuk osatzen dute Oizko estazio megalitikoa?

Proiektu honekin hasi ginenean, Eusko Jaurlaritzak sei monumentu zituen Kultura Ondasun gisa kalifikatuta, baina lehen azterketa batean haietako bat baztertu genuen, ez baitzelako trikuharria baizik eta formazio naturala. Hala ere, 2021ean bertan, cromlech edo harrespil berri bat aurkitu genuen, eta 2022an beste bi topatu genuen, guztiz lurperatuta. Hori dela-eta, gaur egun zortzi monumentu ditugu. Eta baliteke 2024an besteren bat gehiago aurkitzea.

Monumentu multzo honek berezitasunen bat du?

Oiz mendian Bizkaiko historiaurreko hilobi-sekuentzia megalitiko luzeenetako bat dugu. Lau mila urte inguruko sekuentzia bati buruz hitz egiten ari gara, non hileta-praktiken bilakaera ikus daitekeen: ehorzketa kolektibo eta indibiduala hasi, eta gorpuen errausketaraino. Horrez gain, historiaurrean dauden hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke bertan, eta hori ez da bate-re arrunta: trikuharriak, harres-



Juan Carlos López Quintana.

pil-baratzeak eta iruinari bat. Eta seguruenik badago ere zista bat. Zistak hilobi megalitiko txikiak dira, gorpu bakarra edo bakar batzuk jasotzen zituztenak, eta historiaurreko fase berriago batean eraiki ziren.

Oraindik ere baduzue zer aztertu, beraz...

Bai, lanean dihardugu, baina hala ere dagoeneko badakigu Piriniotako harrespilen eremutik mendebalderen dauden monumentuak direla hauek. Piriniotako harrespilak eremu oso mugatuan eraiki

ziren: Andorran, Huescan, Nafarroan eta Iparraldean hasi, eta Leizaran eta Oria ibaietaraino. Oizkoa, beraz, eremu horretatik kanpo dago, eta hori ere oso deigarria da.

Zer dela-eta hasi zineten Oizko ibilbide megalitiko honetan lan egiten?

Alde batetik, Agiri Arkeologia Elkartean buru-belarri ari gara lanean Bizkaiko monumentu megalitikoaren babesa sustatzeko, eta iruditzen zitzaigun Oizeko monumentuak ez zeudela oso ondo zainduta eta identifikatuta. Berrizko Udalak interes berezia zeukan gai honetan, eta 2021ean proiektu bat aurkeztu genuen Berrizko eta Mallabiko Udalak barne hartzen zituena. Gero, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso genuen 2022a eta 2024a bitartean proiektua burutzeko. Honen helburua da Oizko Estazio Megalitikoa babestea eta balio ematea, eta gizartea sentibilizatzea kultura-ondarea zaintzeko beharraz.

Noiz egongo da bisitatzeko moduan?

Duela urtebete bisita gidatua egin genuen, eta ehun lagunetik gora bildu genituen, baina asmoa da norbanakoak bere kabuz joatea. Horretarako teknologia berrietan oinarritutako baliabide didaktikoak izango dira eskuragarri 2024an, Mallabiko eta Berrizko Udalen eta Agiriren webgunetan. Halaber, monumentu bakoitzaren ondoan QRak jarriko dira, kontakizun historiko zientifikoa entzun eta berrieraikuntza birtualak ikusteko.

"Oizen historiaurreko hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke, eta hori ez da oso arrunta"

Aitzbeltz, magia handiko ondarea

LEIZEA ETA ONDARE PALEONTOLOGIKO ABERATSEKO KOBAZULOA



Aitzbeltz kobazuloko ataria eta sarrerako galeria. MORKAIKO-LEIZARPE TALDEA

Kondairak dio, duela urte asko, gaur hondoa jota dagoen Mendaroko Erentza baserrikoek morroia bidali zutela Munatxo baserri urrunduraino mandatu bat egitera, eta hark, biderik laburrena hartu zuela, Aitzbeltzeko leizetik eta izen bereko kobazulotik gertu pasatzen zen bidexka bat. Leize parera iritsi zenean, txakur handi bat irten ei zitzaion leizetik eta hiru egi handi esateko eskatu. Eta hasi ei zen morroia berbetan, ikaruta: “Eguzkia beroa da, baina sua beroagoa; iletargia argia da, baina eguna argiagoa; eta txakur handiak ikusi ditut, baina zu bestekorik sekula ez”. Hiru egiak esandakoan, txakurrak hagin adar bat eman ei zion. Elezaharraren arabera, morroi hark ez zuen gehiagorik hitzik egin eta handik gutxira hil zen, Erentza baserrian.

1955ean, Aranzadi zientzia elkarteke espeleologo talde batek ezagutarazi zituen lehenengo

Aitzbeltz leizearen barrunbeak. Juan San Martin eibartarra izan zen leizera sartzen lehenengoa, 1955eko ekainaren 24an, eta urte asko igaro badira ere ordutik, oraindik egin gabe dago barrunbe horren benetako miaketa eta topografia. Nolanahi ere, orduan batutako datuekin, gaur, nekez sinistu daiteke leizetik piztirik irten daitekeenik, 279 metroko sakonerako zuloa delako. Baina asmatutakotik adina izaten dute egitik kondaira askok, eta honek bere badu bere egi zatia. Izan ere, leize hartatik metro gutxira dagoen izen bereko kobazuloan izan ziren, bai, piztiak garai batean, historiaurrean gizakia ez ezik hartzak ere bizi izan zirelako han.

Aitzbeltz kobazuloa

Barrunbe zabal eta handia da Aitzbeltz kobazuloa eta XX. mendeko lehen hamarkadetan erromeriak ere egin izan zituzten han. Azke-

neko urteotan, tradizio zahar hori berreskuratu dute Mendaron Motxaila Elkartekoek eta udaberriaren iritsiera ospatzeko urtero egin ohi dute hara ostera, Motxaila Egunean.

Baina arkeologikoki ere interes handiko gunea da Aitzbeltz. Ondare paleontologiko handia du, bere galerien amaieran dagoen 35 metroko sakonerako leize tranpan harrapatuta. Aitzbeltzeko galerietan hamarnaka hezurtegi daude, eta hango hormetan tamaina guztietako atzamarkek antzeman daitezke. Eta jakina, ondare horri eman zaion balio eskasaren adierazle, grafiti-erregistroak ere badaude, batzuk XIX. mendekoak.

Ezbairik gabe, kontatzeko asko gordetzen du Aitzbeltzek, arkeologoek bakarrik deszifratu ahalko dutena. Bitartean, haitzuloa zaintzea dagokigu bisitariari, etorkizunean kondairak barik Izarraitzeko ibar hauetako iragana kontatzeko bide eman diezagun.

Gerrak lagatako zaurietan zehar

EIBAR 1931-1945 EKIMENAK GERRA ZIBILAREN ERAGINA AZALERATZEN DU

Eibar estatuko lehen herria izan zen II. Errepublika aldarrikatzen, Gerra Zibileko gerra frontea izan zen 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte, eta bombardaketen ondoren herria berreraiki behar izan zuten. Hori da, hain zuzen ere, Eibar 1931-1945 ekimenak herrian bertan eta mendian dauden ibilbideetan zehar erakusten diguna. Hainbat panel aurkitu ditzakegu azalpenekin eta, bertan agertzen diren QR kodeak eskaneatuz gero, argazkiak eta bideoak ere ikus daitezke (mugikorrerako aplikazioa ere badago).

Jesus Gutierrez historialaria Udalarekin elkarlanean ibili da ibilbideak prestatzen eta berak eman dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Ordena kronologikoa jarraitu nahi izanez gero, herrian hasi beharko genuke ibilbidea, Ego Gain kalean. Hor egiten dute bat Alfak, langile autogestioko esperientzia gisa 1920tik kooperatiben proiektu aitzindari izandakoak, eta Untzaga plazak, udaletxearen kokalekua, II. Errepublikaren aldarrikapenaren sinboloa.

Eibarrek hamabost hegazkin-bombardaketa jasan zituen, lehen 1936ko abuztuan eta azkena 1937ko apirilaren 26an. Okerrenak, baina, apirilaren 24koa eta 25koa izan ziren, Mussoliniren legioko italiar abiazioaren eskutik Hitlerren alemaniar Luftwaffearen agindupean.

Ibilaldiak Untzagara jotzen du gero. II. Errepublikaren aldarrikapenaren eta 1934ko urriko iraultzaren berri ematen da bertan,



Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa. EIBARKO UDALA



Informazio panelak jarri dituzte.

eta, besteak beste, udaletxeko fatxadan ikus daitezkeen zuloen jatorria zein den azaltzen da.

San Andres elizan du jarraipena ibilbideak. Udaletxearekin batera, ospe handieneko eraikina da Eibarren. Izan ere, XVI. mendean eraiki zuten eta haren in-

gurumaria oso kaltetuta aterazen gerratik. Elizaren kanpandorreak, herriko eraikin garaiena zenez, Amuategui Batailoiarentzat behatoki lana egin zuen, eta matxinoek, eliza, kanoiez tiro egiteko erreferentziatzat hartu bazuten ere, fatxadak ez zuen kalterik jasan.

Herri barruko ibilbideak Bidebarrieta kalean jarraitzen du, gune hori izan baitzen gerrak eragindako kalteen ondoren aldaketa gehien izan zituena. Izan ere, eraikin apal ugari zegoen kale horretan eta kanoiek edo hegazkinen tiroek eragindako sua oso erraz zabaltzen zen aldameneko etxeetara. Gerra ostean, Bidebarrieta eta inguruko kaleetan aldaketa handiak egon ziren, kale zaharrak eta merkatu plaza betiko galdu ziren, eta, trukean, hirirazatu guztiz ezberdina eraiki zen, baita merkatu plaza berria ere.

Urkizu auzoan Eibarko hiru enpresa sinbolikorekin egiten dugu topo: GAC, BH eta Orbea. Hain zuzen ere, Orbea zegoen tokian egiten da geldialdia eta 1840an armak fabrikatzeko sortu zela aipatzen da. I. Mundu Gerraren amaieraren eta 1929ko krisiaren ondorioz, armen negozioa agortu egin zen eta herriko hainbat enpresa produkzioa dibertsifikatzen hasi ziren. Urkizuko horiek, adibidez, bizikletak egiten hasi ziren. Gerra sasoiari Orbean blindatuak fabrikatzeko sistema antolatu zen matxinoei aurre egiteko. Gainera, Euskal Herriko toki askotatik Errepublikaren defendatzaile ugari heldu ziren armak eskuratzerako, herriko industria aprobetxatuz.

Ibilbideak Errebal kalera jotzen du ondoren, eta han zegoen Agustindar Errekoletoen komentuko italiar eta alemaniar abazioen

aldetik jasan zuen zigorra aipatzen da, bertan hartu baitzuten aterpe hainbat batailoik.

Herriko ibilbidearekin amaitzeko, gerraostean hirigintzaren aldetik izandako aldaketa sakona azaltzen da Toribio Etxebarria kalean. Berreraikuntza-lanetan, gainera, gerrako preso askok hartu zuten parte.

Mendiko lubakiak

Mendian, Arrate, Santakurutze eta Akondia inguruan gerraren gordintasuna ikus daiteke, eta ibilbidea jarraituz lubakiak bisitatu daitezke. Gainera, Arraten,

Bi ibilbide daude gerrak Eibarren laga zuena ezagutzeko: hirian eta mendian

Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa dago (Arrateko aterpetxean), "lubaki bat errepresentatzen duena", Gutierrezen berbetan.

Interpretazio zentroak gerra sasoiari Eibarren eta inguruaren maketa modernoa, gerrako alde bien uniformeekin jantzitako manikiak, borroka lekuetan erabilitako tresneria, Gerra Zibilaren gordinena gertutik bizi izan zutenen testigantzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa eta garai hartako propaganda kartelak biltzen ditu.

Zentroa domeketan egoten da zabalik, 11:30etik 13:30era. Aterpearen inguruko informazio gehiago behar izanez gero, albergues@ateri.net helbidera idatzi daiteke; eta zentroari buruzko informazioa jasotzeko kultura@eibar.eus helbidera.

BELAUSTEGI
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR 943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

Ezkutuko altxorrak

MUFOMI FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA ETA HEZUR MUSEOA, BI PERLA

Begi bistakoa dena berehala egi-ten da ezagun, baina altxorrik ederrak ezkutuan gordeta egoten dira sarri, foku guztietatik urruti. Elgoibarren baditugu halakoak, eta horietako bi aipatuko ditugu gaur: Mufomi fosil eta mineralen museoa eta historiaurreari buruzko Hezur Museoa. Artetxe kaleko 28. zenbakian daude, bata bestearen parean, ezkutuan, baina gaur, argitara aterako ditugu.

Fosilak eta mineralak

1992an zabaldu zuten Mufomi Fosil eta Mineralen museoa Elgoibarren, baina gaur egun oraindik ere ezezaguna da jende askorentzat. 3.600 pieza inguru ditu erakusleihatuan bilduta. Gehienak fosilak dira, 2.300 inguru, eta gainerakoak mineralak. Hemen bertakoak eta kanpokoak, txikiak zein handiak, koloretakoak, hainbat forma eta materialetakoak... Pieza horiez gain, lurpeko faunaren aztarnak, meatzaritzako elementuak, eta animalien eskeleto eta burezurak ere ikus daitezke.

Javi Vargas da museoaren sortzaile eta arima. Ez dago bakarrik baina, afizio bera duen Angel Mari Tobajas espeleologoarekin aritzen baita lanean, museoa bizirik mantentzeko. Azken berrikuntza dela urtebete zabaldu zuten: Arbasoen harpea.

Hiru urteko lanaren ostean, historiaurreko koba baten erreplika egin dute museoaren azpiko aldean. Bost gunetan banatu dute koba, eta bertan jasotako margoen bi-



Europako koba ezagunenetako irudien erreplikak marraztu dituzte koban.

tartez, labar artearen historia bildu dute. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako koba ezagunenetako irudi adierazgarrien kopiak egin dituzte, batzuk tamaina errealean eta besteak, eskalan. Altamira, La Araña, Ekain, Lascaux edo Chauvet kobazuloe-tako irudiak ikus daitezke, animalienak gehienak, baina lehen giza irudien errepresentazioak ere egin dituzte. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera

Mufomi museo azpiko Arbasoen Harpeak 45 metroko luzeera dauka eta lau metroko altuera

dauka kobak, eta lau metroko altuera.

Dibulgazio eta pedagogia lana egitea da museoaren helburu nagusia, eta ikastetxeetan ikasitako hainbat gai bertatik bertara eza-gutzeko aukera eskaintzen du, historiako garai desberdinetan zehar bidaia eginez. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, baina aurrez hitzordua eskatzea komeni da: 608 416 683 / info@mufomi.org.

Hezur Museoa

2019an zabaldu zuten Elgoibarko Hezur Museoa. Museo bitxia da, berezia, eta Euskal Herrian, bakarra. Artetxe kaleko 28. zenbakian dago, nahiko leku ezkutuan, baina barruan dagoenak bistaratzea merezi du. Jose Julian Marquez da museoaren sortzailea eta ar-



Hezur museoko hormak eta sabaiaik koba itxura ematen diote museoari.

duraduna, eta guzti honen oinarrian bere zaletasuna dago. Mimos, pasioz eta maitasunez sortutako obra da Hezur Museoa, eta bertan dauden pieza eta elementu guztiak Marquizek berak eskuz egindakoak dira.

Atetik sartzerakoan historiaurreko museo batean barneratzen da bisitaria. Hormetan eta sabaian animalien irudiak ageri dira, okre koloreko tonu desberdinetan margotuta. Historiaurreko gizakiak kobetan horrelako irudiak marrazteko ohitura zeukan, eta horixe bera irudikatu nahi izan du Marquizek marrazki horiekin. Historiaurreko gizakiak marrazten zuen modu berean egin ditu marrazkiak, museoari kobazulo itxura emateko. Altamira, Ekain, Chauvet edo Lascaux bezalako kobetan aurkitutako margoen erreplikak dira.

Barrura sartu, eta horma-irudiekin batera, bitrina eta apaletan bildutako tresnak ikusten dira begiratu batean. Benetakoak dirudite, baina erreplikak dira. Interneten edo liburuetan aurkitzen ditu benetako piezak, eta haiei buruzko informazioa eta originalen detaile guztiak zaintzen ditu kopiak egiterakoan: materiala, irudiak, tamaina... Ordu askotako lana dago tresna bakoitzaren atzean.

Azken hamar urteotan egin ditu Marquizek tresna gehienak, bai-

Denetariko piezak aurki daitezke Hezur Museoan, Brontze garaitik Paleolitikora artekoak

na arkeologiarako zaletasuna aspaldikoa du. 12 bat urte zituela, Elgoibarko Aizkora izenez ezagutzen den pieza aurkitu zuen Morterika inguruan, amuarrainak arrantzatzen ari zela. Hasieran pentsatu zuen mineral bat zela, malakita hain justu ere, berde kolorekoa delako, baina antzinarako tresnaren baten itxura ere hartu zion, eta hara non ikusi zuen gero anaiaren eskola-liburu batean berak aurkitutako aizkoraren parekoa! Brontze aroko aizkora zen, Kristo aurreko 1.500 urte ingurukoa. Orduan konturatu zen haren balioaz; aurkikuntza garrantzitsua izan zen hura Elgoibarrerako. Gaur egun, originala Euskal Herriko arkeologia gordailuan dago.

Denetariko piezak aurki ditza-kegu, Brontze Garaitik Paleolitiko garaira artekoak; kristo aurreko 1000. urtetik 700.000 urterakoak. Aurkikuntzak egiten dituztenean ohikoena izaten da piezak puskatuta aurkitzea, baina Marquizek haiei buruzko informazioa bildu eta osorik egiten ditu.

Historiaurreko gizakiak nola bizi ziren erakutsi nahi du Marquizek, eta tresnen bidez, haien inguruko azalpen guztiak ematen ditu bisita gidatuetan. Horrez gain, lan-tzean behin, erakustaldiak ere egiten ditu, garai hartako tresnak nola erabiltzen diren erakusteko, eta sua egiten ere irakasten die bisitari, lehen gizakiak erabiltzen zituen teknikak erabilia.

Hezur museoa bisitatzeko hitzordua eskatu behar da: 650 353 566.

Oreka Art Gallery Soraluzen

IZEN HANDIA DUTEN ARTISTEN ERAKUSKETAK IZATEN DIRA ARTE GALERIAN

Soraluzen, bada Oreka izeneko arte galeria bat, Gabolats kalean, Oreka Art Gallery and Consulting du izena.

Debabarreneko herri txikienetako batean dago kokatuta eta galeria bi aretotan dago banatuta. Hilero, erakusketa berria inauguratzen dute bertan eta bisitari guztiendako dago zabalik, debalde, gainera

Izen handien eta ezagunen artelanak izaten ditu ikusgai, hemen inguruko artistenak zein urrunagokoenak.

Azkargorta, Errazu, Zumeta...

Gertukoen artean, Oreka Art Gallery bertatik bertara ezagutzen dute, adibidez, Ricardo Azkargorta eta

Luis Laskurain bergarrek, Jon Errazu eta Juan Manuel Arruabarrena soraluzetarrek, Vicente Iriondo eibartarrak, Victor Arrizabalaga mañariarrak, Keixeta zestoarrak, Aitor Ruiz de Egino heraniarrak, Xabier Egaña getxotarrak, Angela Silva gasteiztarrak, Juan Ayesta beasaindarrak zein Usoa Zumeta usurbildarrak.

Peñalver, Lleó, Picasso...

Urrunagokoen artean, berriz, Manolo Oyonarte, Rafael Peñalver, Malu Riaza eta Ivan Araujo madrildarraren margolanak izan dira ikusgai Oreka Arten, Isabela Lleó mallorcarraren eskulturak, Laia Bedos Bonaterra kataluniarraren margolanak zein Barbara Stammel

alemaniarrarenak. Une honetan, Diego Montalbanen obraren mostra eder bat dago ikusgai.

Horiez guztiez aparte, Oreka Art galeriaren sortzaile, bultzatzaile eta kudeatzaile Alberto Ramirezen eskutik, Pablo Picassoren, Eduardo Chillidaren zein Simon Arrieta- ren lanak ere ikusi ahal izan dituzte Soraluzeko arte galeria bisitatu izan dutenek.

Artea arnasbide

Ofiziosz protesigilea bada ere, artea du maite Alberto Ramirezek (Paradas-Sevilla, 1960). Esan izan du berarentzat artea arnasa hartzea dela. Egunero pintatzen du, beraz, obra emankorra du. Adibidez, historiako pintore nagusien bizi-



Manolo Oyonarte Oreka Art galerian.



R. Azkargorta eta A. Ramirez.



Keixeta galerian.



Vicente Iriondo eibartarra.

tzak eta obrak ulertu eta berrin-terpretatzeko ahalegina egin du, Tapiés, Picasso, Estevan Vicente, Palazuelo... Inspirazio iturri modura, berriz, XX. mendeko abangoardia guztiak aintzat hartzen ditu: inpresionistak, Picassoren kubismoa, Kandinski espresionismoa, Malebichen eskola errusiarra...

Baina artista izatetik haratago artearen bultzatzaile sutsua da eta Soraluze arte mugimenduak ekarri eta Soraluze arte bideetan jartzeko helburuarekin, Oreka Art Gallery zabaldu zuen, 2009an.

Galeriaren altruista

Soraluzeko arte galeriak erakundeen eta hainbat fundazioren laguntza izan zuen, baina haren funtzionamendua erabat altruista zen.

Erakusketen programazioaz, artistak ekartzeaz, haiei arreta

**Koldobika Jauregi,
Jose Zugasti, Bingen de Pedro, Mikel Lertxundi
eta Juan Jose Altuna
izango dira galerian**

emateaz eta erakusketen antolatzeaz Alberto Ramirez arduratu izan da, eta, hori gutxi ez, eta erakusketa guztietarako sarrera debalde izan zen.

Azkenean, zailtasun ekonomikoak zirela eta, bi urte geroago Oreka Art galeriak atek itxi behar izan zituen.

Dena den, hamar urte beranduago, 2021ko martxoan, bigarren aldiz zabaldu zuen Alberto Ramirezek arte galeria, berritutako eta egokitutako lokal batean, oraingoan ere guztia bere eskutik. Galeriararen bigarren etapan, dagoeneko 20 erakusketa pasa izan dira ikusgai.

Berritasunak 2023-2024an

Etorkizunari dagokionez, indartsu dator 2023-2024 denboraldia. Alberto Ramirezek aurreratutakoaren arabera, dagoeneko hitzartuta ditu Koldobika Jauregi, Jose Zugasti, Mikel Lertxundi, Bingen de Pedro zein Juan Jose Altuna artisten lanekin erakusketak egingo direla. Gainera, berritasunak iragarri ditu datorren denboraldirako, besteak beste, obra publikoren bat ekartzeko aukera, artistaren baten obrak Oreka Arten zein Udalaren erakusketa gelan, bietan ipintzea, baita artelan batzuk kalean ipintzeko aukera izango dela ere.



TIRO PITXON Jatetxea

Arrate auzoa, 5 EIBAR

943 20 88 59

Karta, eguneko menua, bereziak, pertsonalizatuak, ezkontzak, ospakizunak... Terraza eta bista ederrak

Debabarreneko betiko ostataua

Bizkaia Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

www.melidaostatua.com

Gure ondare arkeologikoa, argitara

HAB HISTORIAURREKO BAILARA

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu Deba bailara". Hitz horiekin aurkeztu zuten martxoan Euskal Kostaldeko Geoparkeko eta Debako Udaleko kideek HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidea.

Maiatzaren bukaeran egin da, dena den, "aire zabalean sortutako museoa" bertatik bertara ezagutzeko lehen irteera edo bisita gidatu interpretatua. Bertan izan ziren, besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, UPV/EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa, eta Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, hitzordura batutako hamarnaka lagunren aurrean azalpenak ematen.

Gaur-gaurkoz, hiru kilometro eta erdiko ibilbidea eskaintzen zaio bisitariari (ez da zirkularra). Norbere kabuz erraz egiteko moduko bidea da, nahiko laua ia bere osotasunean, eta irisgarria.

Debako portuaren inguruan kokatu dute ibilbidearen hasiera eta, Anes Arrinda pasealekutik abiatuta, zubi alderantz segi eta lau zati edo gune nagusitan banatuta dago ondorengo bidea: gizakia eta itsasoa (itsasadarra), gizakia eta estuarioa (Casa Campo), zubia (bizitza nomada), eta bailara (Sasiolako bidea).

Hondartzatik gertu hasi eta Sasiola ingururaino iristen da, hortaz, eskualdeko ondare arkeologikoa argitara emateko helburuz sortutako proiektuaren lehen fasearen emaitza.



Anes Arrinda pasealekuan kokatu dute ibilbidearen hasiera. IZARO AULESTIARTE

Hainbat euskarri prestatu dituzte informazioa modu erakargarri eta ulergarrian eskaintze aldera, eta indar handia dute, oro har, irudiek: Jose Ignacio Treku sortzaile debarrak, esate baterako, ilustrazio ikusgarriak egin ditu propio ibilbidean ezarri diren panel eta interpretazio guneetarako (ibilbidearen hasieran ezarri dute haren artelanik handiena).

Inguru hauetan aurkitutako apaingarri, seinale eta pieza askotan oinarritutako erreplikak ere ikusgai daude erakusmahaietan, baita fosilen erreplikak ere.

Deba bailaran duela 200.000 eta 15.000 urte bitartean bizi ziren gizakiak, animaliak eta haien arteko harremanak nolakoak ziren ezagu-tarazi nahi dute HABen bitartez. Gure geografian izan diren klima-aldaketek utzitako arrastoak aztertuz, Paleolitoko gizakien bizi-baldintzen eta baliabideen berri eman nahi zaie herritarrei.

"Geologia, klima aldaketak, basoak eta gizakien sorkuntzak zein animalien arrastoak aztertuz, paisaiaren eraldaketaz, eta horrekin batera gizakiaren garapenez jabetuko gara; itsasertza, ibaia, karst pinakularrak eta estuarioaren garrantzia zein den erakutsiz, eta, ondorioz, Debako paisaiari bere balioa emanaz", azaldu dute proiektuaren arduradunek.

Azken urteotan, flyscharekin lotu izan da bereziki Euskal Kostaldeko Geoparkea. Baina "hori baino gehiago da", eta hori erakustera dator, hein handi batean, Historiaurreko Bailara proiektua.

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu bailara"



"Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan eta Deba da erdigunea"

zadi elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa eta Asier Gomez paleontologoa, Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, Gordailua eta Bizkaiko Arkeologi Museoa ere bidelagun izan dituzte, haien zuzendaritza zientifikoa eta aholkuak aintzat hartuta landu baita egitasmoa.

Dena den, proiektu oso baten lehen fasea baino ez da orain arte egin den esku-hartzea eta jarrai-pena ematea aurreikusten dute. Oraingoan, Sasiolako begiratokian amaitzen da ibilbidea, eta Praileaitz eta Ermitiako haitzuloak daude han inguruan, bata bestearengandik oso gertu; bada, Praileaitz ingurua museo bihurtu eta Ermitian bisita gidatuak egitea da asmoa.

Adituak azalpenak ematen maiatzeko bisita gidatuan. IZARO AULESTIARTE

Barnealdeko geologiarekin lotuta, hain zuzen, bada beste "altxor" bat inguruotan: bereziki, Deba bailaran dauden kobazuloak eta aztarnategiak. Ermitia, Praileaitz, Langatxo, Iruroin... dira horren adibide. Asier Hilariok azaldu bezala, "Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan, hoguei bat, eta Deba da erdigunea. Hortaz, datu

asko ditugu aztertzeko. Eboluzioa irakurtzeko aukera ematen digu. Oso aukera ona da leku bakar batean historiaurrea ezagutzeko".

Proiektu oso baten lehen fasea
Hainbat urtetako elkarlanaren emaitza da zientzia, artea eta komunikazioa uztartzen dituen HAB proiektua eta erakunde ezberdinen babesa du. Besteak beste, Aran-

Haur, gazte eta helduentzako **surf ikastaroak**, hastapenetik hasi eta hobekuntzaraino. Maila guztietarako **materialaren alokairua** eta **aholkularitza profesionala**.

Hondartza kalea 20 - DEBA
688 743 863
eskola@yakosurf.com
denda@yakosurf.com

Amonite erraldoien gordeleku

MUTRIKUKO NAUTILUS IKASGUNE GEOLOGIKOA

Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean kokatuta, ageri-ageriko eta ezkutuko altxorrez betetako ingurune natural aparta dauka Mutrikuk; horren lekuko dira flysch beltza bezalako eremuak. Milioika urte atzera egin eta ingurune-ko urruneko iraganari, jatorriari eta eraketari buruzko jakin-mina ase nahi dutenek Nautilus Ikasgune Geologikoan daukate horretarako aukera aproposa.

Ehunka bisitari erakartzen ditu urtero museoak eta, aretoa txikia bada ere, ez da nolana hiko bertan ikusgai dagoen altxorra: euskal kostaldearen zein Lur planetaren iraganik urrunena ulertzeko ezinbesteko bihurtu den fosil bilduma zabal bat dago bertan.

Amoniteek duten tamaina, kalitatea eta dibertsitatea kontuan hartuta, gainera, literatura zientifikoan ezagutzen den bilduma handienetarikoa bat da Nautilusekoa.

Oso berezi egiten duen beste balio erantsi bat ere badauka bildumak, duela milioika urte itsasoan jaun eta jabe ziren izaki haien fosilak Mutrikuko zazpi hondartzen inguruetakoa labarretan jasotakoak baitira.

Aurkikuntza horren arduradunak Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteak dira. Bikoteak, flysch beltzean egindako 40 urteko etengabeko lanean, 150 fosil inguru berreskuratatu ditu. Material fosil horiekin, mundu mailako garrantzia duen bilduma paleontologikoa osatu dute.

Nautilus Mutrikuko Interpretazio Geologiko Zentroa ezagutzeko



Amonite ikusgarriek osatzen dute Nautiluseko bilduma. MUTRIKUKO UDALA

bisita eskaintza zabalago dago uda sasoi honetan; bakarka zein taldeka ikus daitezke gunea, eta barne bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte (www.mutriku.eus webgunean ikusgai dago informazio guztia).

Ikasitakoa hurbilgotik ezagutzen

Bestalde, Ikasgune Geologikoko esperientzia osatu nahi dutenek *Nautilus*, *flyscheko fosilak* bisita egiteko aukera ere badute. Geoparkeak antolatutako bisita gidatu horren baitan, lehenik, ikasgunea ezagutzen da eta, ondoren, aretoan ikusgai dauden fosilak

Munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat da

aurkitu zituzten itsaslabar basatiak ikusteko itsas irteera bat ere eskaintzen dute.

Mutrikuko portuan itsasontzia hartuta, aretoan ikasitakoa eta harkaitzetan dagoen ondare geologiko horren gako guztiak hurbilgotik ezagutzeko parada izango dute, hortaz, bisitariak. Saturraran hondartzaraino joango dira, kostalde honetako flysch beltz berezia azaleratzen den lekura, hain zuzen, eta zazpi hondartzen gune ezkutuko horretan hainbat sekretu ezagutzeko aukera izango dute. Inguru horretan berreskuratatu zituzten amonite erraldoiak zehazki non aurkitu zituzten erakustez gain, besteak beste, Bizkaiko Golkoa nola zabaldu zen ere azaldu ohi zaie bisitariei.

Nautilus, *flyscheko fosilak* bisita gidatuei buruzko informazio gehiagorako www.geoparkea.eus atarira jo daitezke.

AGENDA

DEBA

Uztailak 1	20:00	Hitzez Hitz Ikuskizuna	Musika, dantza, bertsoak	Zumardiko karpan
Uzt. 5, 12, 19, 26	19:00	"Marea gora" hitzaldi zikloa	Hitzaldiak	Kultur Elkartean
Uztailak 7	22:00	Bertso saioa: Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus	Bertsolaritza	Plaza Zaharrean
Uztailak 11	19:00	Ai Zapotxin! pailazoa	Ikuskizuna	Kultur Elkartean
Uztailak 14	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uzt. 19-23		Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 21	22:00	"Tonbola" antzerkia	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 28	22:00	Ghau	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Abuztuak 6-10		Itziarko Kopraixak	Jaiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18		San Roke jaiak	Jaiak	Herri osoan zehar

EIBAR

Uztailak 2	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 4-5-6	4 eta 6: 22:30 5ean: 20:00	Ikus-entzunezkoen astea	Ikus-entzunezkoak	San Andres elizako klastroan
Uztailak 7	20:00	Zip trio	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 7	20:30	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 7, 8, 9, 14		Amaña auzoko jaiak	Jaiak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10		Lambretta Eibar XVII. Topaketa		
Uztailak 9	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	Amaña auzoan
Abuztuak 3, 10, 18, 25	22:00	Zinema Kalean	Zinea	Untzagan
Abuztuak 15		Andra Mari jaiak	Jaiak	Azitain auzoan

ELGOIBAR

Uztailak 1-2		Idotorbeko Jaiak	Jaiak	Idotorben
Uztailak 7-9		Urazandiko jaiak	Jaiak	Urazandi auzoan
Uztailak 21	22:30	Nazioarteko Folklore Jaialdia	Dantza	Maalako parkean
Uztailak 22	22:30	'Ilunpetik argira' Verdini dantza taldea	Dokumentala / Dantza	Maalako parkean
Uztailak 28-29		Azkue auzoko jaiak	Jaiak	Azkue auzoan
Abuztuak 6	Goizean	Santumotz Eguna	Jaiak	Santumotz lautadan
Abuztuak 5		Sallobente Jaiak	Jaiak	Sallobente auzoan
Abuztuak 23-28		San Bartolome Jaiak	Jaiak	Herrian zehar

ERMUA

Ek. 30 eta uzt. 1	17:00-22:00/04:00	XV. Elektrojaia	Musika	Martxoaren 8a plazan eta Betiondon
Uztailak 5-9		Sallabente auzoko jaiak	Jaiak	Sallabente auzoan
Uztailak 14	23:00	Sir Aligator's Company	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 15	23:30	Merina Gris eta Nogen	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	19:30	Goazeneko kideekin karaokea	Musika	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	20:30	Bertso jaialdia	Bertso saioa	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 18	22:30	Nhil	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 22	23:30	Álvaro de Luna	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 23	20:30	Anari	Kontzertua	Elizako arkupeetan
Uztailak 24-27		Santixau jaiak	Jaiak	Herriko txoko ezberdinetan

MALLABIA

Uztailak 1-2	Nesken frontenis txapelketa. Bikoteka eta banaka.	Kirol txapelketa	Herriko eta eskolako frontoietan
Abuztuak 14-16	Andra Mari jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuaren 31n	San Erroman jaiak	Jaiak	Zengotita auzoan

MENDARO

Ekainak 30	19:00	Gararock parkean: Amorante, Bikustik eta The Brian Valeta movement	Kontzertua	Herriko Enparantzan
Uztailak 14, 15, 16		Garagardo azoka	Jaia	San Agustin kulturgunean
Uztailak 19		Jazz Eguna	Kontzertua	Herriko gune desberdinetan
Uztailak 22-26		Santana Jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15		Andra Mari Jaiak	Jaiak	Azpilgoetan

MUTRIKU

Uztailak 1	23:00	Mutrikuko Musika Banda	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 8	23:00	Akordeoi taldea eta Madalen abesbatza	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 15	23:00	Gure Ametsa dantza taldea	Dantza	Goiko plaza
Uztailak 21-25		Malen jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Uztailak 22-24		Mater museo ontzia	Bisita	Portuan
Uztailak 28-31		Euskal Bateleroen eguna		
Uztailak 29	22:30	Mariachi Imperial	Kontzertua	Goiko plaza
Abuztuak 2, 9, 16	22:00	Aire libreko zinema	Zinema	Zabel plaza
Abuztuak 5	22:30	Mikel Urdangarin	Kontzertua	Goiko plaza

SORALUZE

Ekainak 28	19:00	Encarnación Bermúdez	Argazki erakusketa	Oreka Art Gallery
Uztailak 2	10:00	Moto Club Plaentxi	Moto topaketa	Herrian
Uztailak 16-18		San Andresko jaiak	Jaiak	San Andres auzoa
Uztailak 22-26		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15-17		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar



DOLMENEN IBILBIDEA

BISITA GIDATUAK
 Uztailak 16, igandea (euskeraz)
 Uztailak 23, igandea (gaztelania)
 Abuztuak 17, osteguna (gaztelania)
 10:00etan Karakateko aparkalekuan

izen-ematea



657 794 677










'Udako kultura ilargipean' egitasmoa aurkeztu du Elgoibarko Udalak

Udako kultur programa berezia prestatu du Elgoibarko Udalak uztaileko asteburuetarako. Ilargipean izango dira ekintzak, 22:30ean, eta aire libreko zinea eta dantzak izango dira nagusi. Uztailearen 21ean iritsiko da Nazioarteko Folklore jaialdia Haritz Dantza Taldearen eskutik. Aurten Errumaniako eta Mexikoko dantza taldeak izango dira gonbidatuak, baina aurten are bereziagoa izango da egun hori, nazioarteko dantzez gain, erraldoi berriak aurkeztuko dituztelako. Asensio Altzola eta Katalina Ibarrekin batera, beraz, bi dantzari arituko dira aurrerantzean Elgoibarko erraldoien konpartsan, eta errege-erreginak ekitaldi berezietan aterako dituzte.



Dantza ekitaldiekin jarraituta, *Ilunpetik argira* dokumentala proiektatuko dute hilaren 22an, Maalan. Janire Rodriguez, Maria Garmendia eta Ainhoa Zubizarreta Mondragon Unibertsitateko ikasleek sortutako proiektua da, Verdini dantza Taldearekin batera. Aniztasun funtzionala duten dantzariak osatzen dute taldea, eta dokumentalaren ostean emango dute dantzaldia.

AIRE LIBREKO ZINEA (Kalegoen plazan, 22:30)

- UZTAILAK 7, BARIKUA
'Una veterinaria en Borgoña'
- UZTAILAK 14, BARIKUA
'Dantza'
- UZTAILAK 28, BARIKUA
'Un pequeño plan... cómo salvar el planeta'
- UZTAILAK 8, ZAPATUA
'El colegio de los animales mágicos'
- UZTAILAK 15, ZAPATUA
'DC super maskoten liga'
- UZTAILAK 29, ZAPATUA
'Minúsculos: El valle de las hormigas'



Abel Florido Gandullo kataluniarraren kartelak iragarriko ditu sanbartolomeak

Hamazazpi kartel aurkeztu dituzte San Bartolome jaietako egitarauaren azaleko irudi lehiaketara, eta epaimahaiak aste honetan bertan egin du aukeraketa: Abel Florido Gandullo kataluniarraren lana aukeratu dute, eta 800 euroko saria jasoko du. Umeen marrazki lehiaketan, bestalde, bederatzi lan aurkeztu dituzte, eta hauek izan dira sarituak: Leire Eguren, Sare Meabebasterretxea, Ibon Baskaran, Oihane Meabebasterretxea, Libe Jurado eta Ibai Meabebasterretxea. Sari banaketa abuztuaren 23an egingo dute, 20:30ean udaletxeko udalbatza aretoan.

Gararock parkean musika jaialdia izango da gaur, Mendaron

Gararock parkean jaialdia antolatu du gaurko Gararock taldeak, Udalaren eta Uztargi tabernaren laguntzarekin. Azpilgoetako Santa Kuzkuako parkean izango da jaialdia, 19:00etan hasita, eta hiru talderen kontzertuak izango dira: Bikustik, Amorante eta The Brian Valeta Movement. Gaurkoa, baina, irailaren 23rako Mendaron antolatu duten Gararock jaialdi handiaren atarikoak izatea nahi dute antolatzaileek eta aurreratu dute gaur jakinaraziko dutela iraillekoaren kartela ere. Kartelaren diseinua Iñaki Ovejero diseinatzaile grafikoak egin du, Sinuöseren kartelak egin ohi dituen artista berberak.

Era berean, baina, Carlos Cebrian *Cebri* laguna oroitzeke eguna ere izango dute gaurkoa. 2020ko ekainaren 3an hil zen Cebrian, eta The Brian Valeta Movementen haren taldekide izan zirenek, Patxi Zabaletak eta Rafa Furnierrek, Cebri bizi zela egindako grabazioekin ondutako diskoa aurkeztuko dute gaur. Diskoa bera eskuratzeko aukera ere izango da jaialdian.



Santanetako bazkarietarako izen-emateak, zabalik, eta zehaztuta danborradarako entsegu egunak

Gero eta gutxiago falta da Mendaroko Santa Ana jaietarako, eta hasi dira mendaroarrak jaietarako prestatzen. Hona hemen agendan kontuan hartu beharreko egun eta epe batzuk.

Uztailaren 2ra arteko epea dago santanetako Gazte Eguneko bazkarirako izena emateko. Uztailaren 22a, jaietako lehenengo eguna, izango da Gazteen Eguna eta 15:00etarako bazkaria antolatu dute Gazte Asanbladatik, frontoian. Izena emateko 688 817 812 telefono zenbakira deitu behar da eta sei euro ordaindu.

Uztailaren 24ko Kuadrillen Eguneko bazkarirako izena emateko epea berriz uztailaren 14an amaituko da. Uztargi, Ormola edo Aitz Beltz tabernetan eman behar da izena, pertsonako hamar euro ordainduta. Kuadrilla bakoitzak bere paella prestatu beharko du eta epaimahai bat egongo da onena aukeratzeko, lehiaketa izango baita. Lehiaketarako derrigorra izango da Udalak emandako osagaiak erabiltzea, baina beste edozer gehitzeko aukera ere izango dute sukaldariek. Hiru sari banatuko dituzte, 200, 150



eta 100 eurokoak. Lehiaketan parte hartzeko gutxienez 14 urte izan behar dira, eta kuadrilla guztiek lagundu beharko dute antolakuntzan.

Bi danborradetarako entsegu egunak

Bestalde, zehaztu dituzte danborradetarako entsegu egunak ere. Helduek uztailaren 3an, 10ean eta 17an izango dituzte entseguak, frontoian, 21:00etan, eta haurrek uztailaren 4an, 11n eta 18an; leku berean, baina 19:00etan. Gaur da azken eguna haurren danborradetarako izena emateko (ekintzakarno@gmail.com) eta uztailaren 10ra arteko epea dago helduen danborradetarako izena emateko.

Herriak berak adina urte bete ditu Mendaroko Txirristaka tabernak, 40, eta jai giroan ospatu dute



Mendaroko Txirristaka tabernak 40 urte bete ditu aurten, herriak berak beste, eta jai-giroan ospatu zuten barikuan, Bizi Poza txarangakoekin. Barikuko ospakizunean, gainera, estreinakoz aritu ziren txarangarekin Egoi Motriko, (tronpeta) eta Ander Ariznabarreta (saxofoi altua).

1983ko maiatzean zabaldu zuten Txirristaka taberna Angel Loiartek eta Juan Jose Loiolak. Maiatzeko azkeneko domeka zen, Trinitate jaietako egun handia Mendaron. Barberokoan jaiotako Eusebio Mugertza *Txirristaka* (1874-1955) bertsolariaren omenez, haren ezizena hartu zuten taberna izendatzeko. Inaugurazio eguna berezia izan zela oroitzen dute herrian. Zabaldu eta zazpi bat urtera utzi zuen gero taberna Loiartek eta Joseba Zulaika batu zitzaion lantaldera Loiolari. Geroztik bera izan da jabea, baina dozenaka laguntzaile izan ditu, eta herri oso bat bezero.

Hain justu ere haiekin guztiekin ospatu nahi izan zuen 40. urteurrena joan zen barikuan. Bizi Poza txarangakoak jarri zuten musika eta jaietako egun baten traza hartu zuen bariku iluntzeak Mendarozabalen. Joan zen asteko BARRENEN ere eman zizkien eskerrak etxekoei eta urte guzti hauetan bezero izan dituen guztiei, 40 urtean emandako babesagatik, eta akorduan izan zituen baita ere urte hauetan galdu dituzten lagunak, Txirristakan etxeko izan dituzten bezeroak. Eta ospakizunaren ondorenean, astelehenean, beste horrenbeste egin zuten: "Zurekin ari naizela ere hunkitu egiten naiz. Oso egun polita izan zen. Lagun asko etorri ziren eta jai-giro ederra sortu zen. Biserak atera nituen urteurrenerako, baina motz gelditu nintzen, denak bukatu zirelako. Txarangakoak ere izugarri ondo portatu ziren eta eskertu nahi diet. Sekulako giroa sortu zuten, eta ahaztezina egin zuten eguna. Mila esker haiei beraz". (👉 Nahiara Mugertza)

Larrain dantza ikastaroa antolatu dute sanbartolomeei begira



Abuztuaren 23an, Larrain dantza dantzatuko dute Kalegoen plazan, 12:30ean, txupinazoaren aurretik, eta ordurako prestatzeko, ikastaroa antolatu dute Elgoibarren. Uztailaren 5ean eta 12an izango dira saioak, musika eskolako laugarren solairuan, 20:00etan. Ikastaroak 20 euro balio ditu eta entsegu egunean bertan egin beharko da ordainketa. Antolatzaileek entseguetara nork bere zapi eramateko eskatu dute.



SUA GURTU DUTE AKELARREAN

✍️ Aina Argoitia 🗣️ Asier Orbea

San Joan bezperako akelarrea egin zuten Mendaron zapatuan. In Leike elkarteak antolatu zuen, herriko hainbat eragile eta norbanakorekin lankidetzan, eta jendetza handia batu zen plazan, suaren bueltako jaia elkarrekin ospatzeko. Trinitatetik irten ziren Akerbeltz eta haren segizioa plazarantz, zuziak eskuan zituztela, eta plazan, hainbat dantza dantzatu zituzten Gazteak dantza taldekoek eta dantza modernoko dantzariak, sua isiotu aurretik. Dantzariak eurek piztu zuten San Joan sua, eta plaza osoa argitu zen bat-batean. Erraldoiak dantzarazi zituzten gero eta kalejira batean ibili ziren suaren bueltan dantzan, harik eta su handia itzali eta ondoan su txikiagoak piztu zituzten arte, saltoka aritzeko. Bideoa eta argazkiak: barren.eus





205 umek hasi dute kirol campusa

7 eta 15 urte bitarteko 205 neska-mutilek eman dute izena aurten Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatzen duen kirol campusean (2007-2016 urteak bitartean jaiotakoak). Gaztetxook hamahiru begiraleren gidaritzapean arituko dira, eta David Rodriguez izango da campuseko koordinatzailea. Uztailaren 21era bitartean, astelehenetik barikura, goizeko 9:30etik 12:30era, hainbat kirol egingo dituzte: eskalada, atletismoa, mendi bizikleta, orientazioa, futbola, eskubaloia, herri kirolak, frontoiko jolasak, mendizaletasuna, patinajea, padela, tenisa, igerian Mintxetako igerilekuetan, ur jolasak, zumba, e.a.



Realaren kadete taldean jokatu du Sara Eturak



Elgoibar kirol elkarteko jokalaria Sara Etura Gonzalez gazte elgoibartarra fitxatu du Realak, talde txuri-urdinaren kadete mailako taldean jokatzeko. Kirol taldeko arduradunek adierazi dutenez, berri pozgarria izateaz gainera "historikoa" ere bada, Realak C.D. Elgoibarretik fitxatzen duen estreinako emakumezkoa baita. Jokalaria zoriondu dute klubetik, eta emakumeen futbola sustatzen jarraituko dutela agindu dute. Infantiletan jokatzeko zuenetik deitu izan du Realak Etura teknifikazio saioetan zein txapelketetan parte hartzeko. Iaz, esaterako, bi txapelketa jokatu zituen Aste Santuan, eta horietako bat irabazi ere egin zuten. Orain, baina, taldeko kide finko izateko deitu dute.

Morkaikoren uztailerako proposamenak: Araneko Itzulia, Zarautz-Elgoibar BTT irteera eta rokodromo berriari buruzko bilera

Morkaiko mendizale taldeak bi irteera antolatu ditu uztailerako. Batetik, Morkaikoko BTT taldeak mendi bizikleta irteera antolatu du uztailaren 9rako. Zarautz eta Elgoibar artean egingo dute 40 kilometroko ibilbidea, Zarautz eta Deba arteko itsasertzaz bizikleta gainean gozatzea baita irteeraren helburua. Elgoibartik Zarautzera trenez joango dira. Xehetasun gehiago Morkaikoren webgunean. Bestetik, Araneko bailarara lau eguneko irteera antolatu dute Eibarko Klub Deportiboarekin batera (uztailaren 22tik 25era). Araneko Itzulia mendi zeharkaldiko azken etapak egingo dituzte: Bonaiguako portua-Colomers aterpea; Colomers aterpea-Restanca aterpea; Restanca aterpea-Conangles aterpea eta

Conangles aterpea Vielhako tunneleko iparreko sarreraraino. Xehetasun guztiak morkaiko.eus webgunean.

Rokodromo berriari buruzko bilera

Morkaiko eta Elgoibarko eskalada taldea Elgoibarren boulder erako rokodromoa sortzeko elkarlanean ari dira. Familiak, umeak, hasiberriak eta entrenamendurako lekua izango luke rokodromo berriak. Hurrengo urratsak eman ahal izateko, jende gehiago batu nahi dute egitasmoari tiraka ari den taldera, eta asmo horrekin batzarra antolatu dute uztailaren 6rako. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Eskaladan interesa duen oro gonbidatu dute batzarrera.



Nahaste Borraste, gaur, Elgoibarren



Kimetz elkarteak antolatzen duen Nahaste Borraste kirol proba berezia jokatu dute gaur, hilak 30, Kalegoen plazatik hasita (19:00). Ibilbidea azken urteetako bera izango da: bizikletaz (7 kilometro), zakua bizkarrean dutela (400 metro) eta korrika (1,5 kilometro). Aurrez izena emandakoek gaur jaso beharko dute dortsala, 18:30ak baino lehenenago. Izena eman nahi dutenek 17:00etatik 18:30era izango dute aukera, Kalegoen plazan. Iaz 31 lagunek hartu zuten parte, eta Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez izan ziren azkarrenak. Hamargarrengoz irabazi zuen Larizek eta hamabosgarren garaipena izan zen Lendinezentzat.

LaRoitakoek egun osoko egitaraua prestatu dute erronkaren harira



Hiru lehiakide izango ditu LaRoita erronkaren hirugarren edizioak, bihar: Ion Fernandez, Asier Basurto eta Ander Aranbarri. Igerian, bizikletan eta saltaka lehiatuko dira Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakate gaina lotuko dituen lagunarteko erronkan. 09:00etan hasiko dute proba Mutrikun, eta 11:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia, Karakate gainean. LaRoita kuadrillakoek aurreratu dute, baina, kirol erronka baino gehiago izango dela aurtengoa. Egun osoko egitarauarekin jantzi dute eguna: Porra, Mauxitxa txaranga, bazkari herrikoia, karropotea, rock kontzertua... "Osagai guztiekin hornituta dator aurreko LaRoita erronkaren hirugarren ekitaldia; berrituta eta handituta", esan dute (ikus egitaraua agendan). Iaz egin zuten moduan, LaRoitakoek zuzenean emango dute erronka, Youtuben duten kanaletik.

Gipuzkoako Itzulian bigarren egin du Eneko Ortega txirrindulari elgoibartarrak

Jubenilen Gipuzkoako Itzulia jokatu dute ekainaren 23tik 26ra bitartean. Prologoa jokatu zuten barikuan, Idiazabalen, eta, Mendaron lehen etapa, zapatuan, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Mendaron Hector Martinez (LUCT) izan zen 92 kilometroko ibilbidea osatzen azkarrena, 2:11:27ko denbora eginda eta Eneko Ortega Elgoibarko Lagun Taldekoak (Besa-Laboral Kutxa) egin zuen bigarren. Andoainen jokatu zuten bigarren etapa, domekan, eta Aimar Alarcia (Iruk) izan zen tropeleko azkarrena. Hirugarren eta azken etapa astelehenean jokatu zuten, Seguran, eta Eneko Ortega sailkapen nagusiko laugarren postuan ailegatu zen, liderrarengandik 22 segundora. Hector Alvarez Lucta-Granja Rinya taldeko txirrindularia izan zen azkarrena azken etapari eta sailkapen nagusian ere bera gailendu da. Ortegak bigarren egin zuen etapari, zein sailkapen orokorrean. Asteburuan, gainera, Espainiako Txapelketa jokatu du Ortegak, euskal selekzioarekin, Cartagenan (Murtzia, Espainia). Atzo zuen jokatzea erlojuaren kontrakoa eta domekan, hilaren 2an, jokatuko du lineakoa.



Finlandiarrak nagusi euskal selekzioaren aurkako lehiari



Basque Country International Cup txapelketarekin itzuli da lehiari senior mailako gizonetzkoen eskubaloiko euskal selekzioa. Joan den asteburuan lagunarteko hiru partida jokatu zituzten Finlandiaren aurka. Gasteizen barikuan jokatutako neurketan etxeokoa gailendu ziren 33-29ko emaitzarekin. Zumarragan jokatu zuten elkarren arteko bigarren partida, zapatuan, eta berriro ere Euskal Selektzioa nagusitu zen, 38-30eko emaitzarekin.

Hirugarren partida Olaizaga kiroldegian jokatu zuten, domeka eguerdian, eta aurreko bi partidetan ez bezala, finlandiarrek irabazi zuten, 33-27ko emaitzarekin. Sanloko Alcorta F.G. taldeko jokalaria den Oier Arriola Leiaristi elgoibartarrak Euskadiko selekzioarekin jokatu zuen. Euskal Eskubaloiko Federazioak eskerrak eman dizkio Sanlori Elgoibarren jokatutako partida antolatzen emandako laguntzagatik.

Txus Alzaga izendatu dute Club Deportivo Elgoibarreko presidente



Txus Alzaga buru duen zuzendaritza talde berriaren hautagaitza onartu zuten C.D. Elgoibarreko bazkideek, ekainaren 22an egin zuten urteko batzar orokorrean. Presidenteak Gotzon Gurrutxaga, Leyre Morla, Oscar Urio, Ane Etxeberria eta Olatz Oñederra izango ditu lagun zuzendaritzan. Baina, beste bi kide gehiago batzea ere gustatuko litzaieke, hutsik dauden bi eserleku horietarako izenik ez duten arren, oraingoz. 2016. urtetik kirol taldeko zuzendaritza osatu duten lagunak aspalditik zebiltzan errelebo eske, eta urte hasieran azaldu zitzaizen lekukoa hartzeko prest zegoen taldea. Harrezgero elkarlanean aritu dira, zuzendaritza berriaren hasiera erosoagoa eta errazagoa egite aldera. Jon Basurtok eta Iñigo Palominok azken denboraldiko kirol eta ekonomia balantzeen berri eman zuten batzarrean, eta agintaldi osoaren balorazioa ere egin zuten. Palominok adierazi zuen ekonomikoki epe luzera jasangarria den kluba sustatzea izan dela euren asmoa, "eta apaltasunez uste dugu helburu hori bete dugula". Orain dela 7 urte, bankuko kontu korrontean 38.397,73 euro zeudela hartu zutela kluba gogora ekarri zuen, eta 110.000 eurotik gorako ondarearekin laga dutela. "Ondare ekonomiko horrek lasaitasunez kudeatzeko aukera ematen du eta epe luzera begira kudeatzea ere ahalbidetzen du. Gu sartu ginenean moduan, diru kontuak arazo bat ez izatea mesedegarria izango da bere

bidea hasiko duen zuzendaritza berriarentzat". Azken denboraldiko diru kontuei dagokionez, 12.735 euroko emaitza ekonomiko positiboa (Gastuak: 251.573 euro/ Sarrerak: 251.573 euro) lortu duela jakinarazi zuen klubeko ekonomia arduradunak, eta kirol taldeak azken urteetan izan duen hazkundea, hartu duen "dimentsioa", azpimarratu zuen. "Gastuak %33 igo dira Covid aurreko azken denboraldikoekin, 2019koekin, alderatuta".

Diru sarrerei erreparaturata, bazkide kuotetatik 45.000 euro jaso dituzte, aurreko denboraldian baino 4.000 euro gehiago; bazkide kopuruak gora eginn duela-eta. Errifak saltzetik 57.200 euro eskuratu dituzte. Hala, diru sarreraren %40a baino gehiago bazkide kuota/izen-emateetatik, eta errifak saltzetik eskuratu dituztela nabarmendu zuen Palominok, 100.000 eurotik gora. Amaitu den denboraldia emakumezkoen futbolarena izan dela esan zuen kirol arloaren balorazioa egin zuen Jon Basurtok. "Kadete eta senior mailan diharduten taldeen igoerei esker, gogoan izateko denboraldia izan da". Senior taldeari aurrerantzean emakumezkoen Haundi taldea deituko diotela ere jakinarazi zuen. Aldiz, gizonetzkoen taldeentzako ez dela denboraldi oso ona izan aitortu zuen, bi talde (Preferente Mailako jubenilak eta erregionala) mailaz jaitsi direlako eta beste bi talderen denboraldia "nahiko justua" izan delako. (balorazioak osorik *barren.eus*)

Mateos-Ibarrola eta Astiazaran-Albizuri bikoteek irabazi dituzte emakumezkoen eta gizonezkoen Elgoibarko pala txapelketak



Kalegoen plaza jendez gainezka zela jokatu zituzten finalekin amaitu ziren barikuan, emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketak. Aurten, eguraldiagatik partida ugari Ikastolako Frontoian jokatu behar izan dituzten arren, finalak eguraldi eguzkitsuarekin jokatu zituzten plazako frontoi zaharrean. Emakumezkoen txapelketaren 10. edizioko finala jokatu zuten lehenik.

Yoli Mateos elgoibartarrak eta Eva Ibarrola mutrikuarrak osatutako bikoteak 22-16 irabazi zion Karmele Martinez zarauztarrak eta Saioa Iraola mutrikuarrak osatutako bikoteari. Lagunak Pilota Eskolak antolatzen ditu pala txapelketok, zenbait boluntarioren laguntzarekin, eta horietako bat da Yoli Mateos palazale elgoibartarra. Futbolearen goi mailan aritutakoa da eta pilotan ere trebea da oso, hirugarren txapela baitu aurtengoa. Hala ere, aitortu du aurtengo txapelketan maila handiagoa igarri duela: "Bistan da emakumeok gogoko

dugula palan jokatzea, eta gainera, denbora gutxian hobera egin du jokalariei mailak". Parte hartu duen bikote kopuruarekin ere pozik agertu da, eta esan du txapelketak antolatzen jarraitzeko pizgarria dela hori. Emakumezkoen finalaren ostean jokatu zuten gizonezkoen seigarren ekitaldiko finala. Elgoibartarren eta azpeitiarren arteko lehia estuaren ostean, Ivet Astiazaran eta Igor Albizu lehengusu azpeitiarrak gailendu ziren, Ander Conderi eta Sergio Martinezi 22-20 irabazita. Partida amaieran pozik ziren azpeitiarrak eta baita Azpeititik ekarri zituzten lagunak ere. Euren oihu eta animoekin giro berezia sortu zuten. Garaipenak ilusio handia egin ziela azaldu zuen Astiazaranek eta antolakuntzak eginiko lana goraiatu zuen. Albizurik esan zuen duela lau urte ere hartu zutela parte eta Kalegoen plazako frontoia "berezia" eta jokatze "oso zaila" dela, jokaldia egiteko arriskua hartu aurretik bi aldiz pentsatzera bultzatzen duen frontoia delako. (Argazkiak eta bideoa barren.eus).



Ane
Oncala
Gonzalez

5 urte, Elgoibar



"Katua"



Danel
Iglesias
Bote

6 urte, Elgoibar



"Zuhaitz magikoa"

LANA

Eskaerak

Uztailean eta abuztuan lanean jarduteko prest nago. Umeak zaintzen edota ingeleseko klaseak ematen. Ingeles maila ona dut. 627 417 833

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Opor garaian lan egiteko prest nago. 631 425 686

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest nago. Erizain laguntzaile titulazioa daukat. 660 511 781

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Erizaintzako eta titulu soziosanitaria ditut, eta esperientzia handia. 643 505 662

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. 644 943 297

Zaintza lanak egingo nituzke gauetan, bai ospitaleetan eta baita etxeetan ere. 632 229 972

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitariao daukat baita esperientzia ere. 602 592 092

Udan umeak zaintzen egingo nuke lan, Elgoibarren. Euskalduna naiz. 618 489 947

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitariao daukat. 612 554 744

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanak egiteko ere. 678 767 942

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitariao eta esperientzia handia ditut. 654 994 405

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanetan aritzeko ere. Esperientziaduna. 641 756 213

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitariao, esperientzia eta kotxea ditut. 697 754 174

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitariao, esperientzia eta kotxea ditut. Baserrietara joateko prest nago. 604 986 450

Adinekoak zaintzeko prest nago, gaeuz, astelehenetik ostiralera. Beharrezkoa den titulazioa daukat, bai eta esperientzia ere. 643 071 900

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulazioa ditut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 666 493 717

Goizetan adinekoak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanak egiteko ere. Titulu soziosanitariao daukat eta esperientzia handia. 632 679 710

Adinekoak zaintzeko prest nago. Paperak legeaz ditut, eta titulu soziosanitariao daukat. 602 398 328

Adinekoak zaintzeko prest nago, eta etxeetan edo lantegietan garbiketa lanak egiteko ere bai. 641 359 007

Eskaintza

6 eta 9 urteko bi ume zaintzeko pertsona behar dugu. Uztaileak 10etik uztaileak 21era, eguerdiko 13:00etatik 16:30era. 616 106 260

Matematika eta fisika eskola partikularrak emateko pertsona behar dugu, Selektibitateko prestatzeko. 632 229 972

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide Kontsekoa</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxebizitza bat erosi dut, eta erabateko berritze lanak egiteko asmoa daukagu. Obra egiteko hartu dugun enpresak adierazi digu gure etxebizitzaren barrutik igarotzen diren eroanbide orokorretan egokitzapenak egin behar direla. Jakin nahi nuke egin ditzakegun edo baimena eskatu behar dugun.</p> <p>Etxebizitza barruko obren kasuistika askotarikoa da, eta garrantzi komunitarioa du. Kasu horietako bat gertatzen da jabe batek, modu individuallean, eraikinaren kanpoko fatxadako galeriak ixten dituenean, normalean metalezko egitura arinen bidez, aluminioz edo kristalez. Legeak debekatu egiten ditu eraikinaren kanpoko itxura aldatzen duten jarduketak. Ezin dira hutsuneak ireki etxebizitzaren edo lokalaren kanpoko hormetan, nahiz eta hutsune horiek ez izan horma nagusietan. Debeku hori arrazoiakoa da, ez soilik higiezinaren kanpoko egoera aldatuko lukeelako, baizik eta, batez ere, eraikinaren itxitura-hormak edo perimetro-paretak elementu komun bat direlako, jabeen banakako jardunarekin zerikusirik ez duena. Pisu edo lokalaren barrutik pasatzen diren eroanbide orokorrak ere ezin dira aldatu. Desbideratzen badira ere, horietako batzuek funtzionaltasuna gal dezakete, itxuraz kalterik egiten ez duen jarduerak batekin.</p> <p>GOMENDIOA. Horrelako jardueretan, besteak beste, Komunitatearen baimena behar da, eta teknikari eskudunak gainbegiratu beharko ditu obrak, funtzionaltasuna bermatuz.</p> <p>GOXR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **June**,
uztailaren 2an
3 urte beteko
dituzulako.
Patxo potolo bat,
etxekoan partez.



Zorionak, **Libe**,
astelehenean
7 urte egingo
dituzulako.
Jarraitu beti
bezain alai eta
jator. Muxu
handi bat
famiilaokoen,
eta bereziki,
Aimarren partez.
Ondo pasa.



Zorionak, **Nora!**
9 urte potolo!
Ederki ospatuko
dugu gaur!
Muxu handi bat,
etxekoan partez.



Zorionak, **Kai**,
gaur 6 urte bete
dituzulako! Muxu
asko, denon
partez.



47ko kintook egun ederra ospatu genuen joan zen ekainaren 17an. 45 lagun elkartu ginen bazkaritan, eta datorren urtean errepikatzeko gogoz gaude.



Zorionak, **amama eta Julen**, zapatuan
66 eta 2 urte beteko dituzuelako.
Sara eta Learen partez. Zapatuan
ospatuko dugu!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

**ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar



+



Luzera:	90	105	135	150
Prezioa:	430€	470€	585€	635€

180 cm-ko luzeerako koltxoietan %5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, %10

**1. STRETCH LUXE EHUNA
2. VISCOJOJA EHUNA
3. AIRFILL EHUNA
4. POLITEX ETA BIOCELL EHUNA
5. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
6. AIREZTAPEN BALBULAK
7. ERGONOMIKOA**

OPARI
VITALIA BOKKOA

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

30 BARIKUA

19:00 Nahaste Borraste.

Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazatik abiatuko da proba.

19:00 Gararock parkean.

Amorante, Bikustik eta The Brian Valeta Movement taldeen kontzertuak eta irailaren 23an egingo duten Gararock jaialdi handiaren aurkezpena Mendaron, Santa Kuzkuako parkean.

1 ZAPATUA

LaRoita Erronka

9:00 Igeriketa, Mutrikuko portuan.

11:00 Sari banaketa, Karakaten.

Eguerdian, porraren sari banaketa, Maalan.

Jarraian, poteoa, Mauxitxa txarangarekin.

Ondoren, bazkaria, Karakate jatetxean.

18:30 Karropoteoa.

Iluntzean, Jezy's Tyros eta Kostako Vibes taldeen kontzertua, Gaztetxean.

5 EGUAZTENA

20:00 Larrain dantza entsegua. Musika Eskolako 4. solairuan.

7 BARIKUA

18:30 7. Arteari buruzko kafe tertulia. Lilan. Denontzat irekia. Mokadutxo eskainiko da. Antolatzailea: Haizea.

19:00 Sanloren urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00-02:00 Ultratrail lasterketari ongietorria Azkaraten. Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea.

IDOTORBEKO JAIK



30 BARIKUA

20:30 Lagun arteko afaria San Pedro elkartean. 30 euro pertsonako.

22:30 Mus txapelketa. 25 euro bikoteko.

1 ZAPATUA

16:00 Autobusa, Maalako errotondatik.

16:30 Umeentzako jolasak eta Rusoren animaliak.

18:30 Niala magoa.

21:00 Lagun arteko afaria, San Pedro jatetxean (943 740 010).

23:30 Erromeria, Bide Batez taldearekin.

Ordu txikitan, irrintzi txapelketa.

Ondoren, berakatz zopa doan, San Pedro elkartean.

2 DOMEKA

12:00 Baltzola eta Andonegi soinujoleak.

13:00 Bolo txapelketa.

Ondoren, Maite Gourmetek eskainitako pintxo dastaketa.

Bazkalostean, erromeria.

18:00 Errifaren zozketa.

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

EKAINA

30 BARIKUA

UZTAILA

1 ZAPATUA

2 DOMEKA

3 ASTELEHENA

4 MARTITZENA

5 EGUAZTENA

6 EGUENA

7 BARIKUA

Egunez

Garitaonandia

Garitaonandia

Garitaonandia

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

2023 urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)

943 203 052

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Jesus Maria Canales Zabaleta

2023ko ekainaren 20an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maite zaitugu.

Etxekoak



IV. URTEURRENA

Arrate Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.

***Zurekin amets, zurekin negar,
zurekin barre, zurekin musu.***

Gutako bakoitzean bizirik jarraitzen duzu.

Gugan beti, maite zaitugu.

Etxekoak



X. URTEURRENA

Rosi Etxaniz Garagarza

2013ko uztailaren 2an hil zen, 67 urte zituela.

***Nahiz eta 10 urte pasatu,
zure hutsunea ez du inork beteko.
Maite zaitugu.***

Familia

ERABILI TXARTELA!!

Uztailaren 1etik uztailaren 31ra.

Elgoibarko Txankakua txartelarekin egindako lehenengo erosketarekin botila bat izango duzu opari*.

*Eskaintza agortu arte.



Euskadi,
uzalana

